
ENPLEGUA EAE-KO ESTABLEZIMENDUETAN 2008tik 2016ra

**EAEko sektore pribatuan enpleguak izan
duen bilakaeraren azterketa, Lan
Merkatuaren Erroldako Eskari Fasearen
datuak oinarri hartuta**

**LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO
DE RELACIONES
LABORALES**

Urkixo zumarkalea 2, 3
48008 Bilbo – Bizkaia

Tel.: 94 479 21 00
www.crl-lhk.eus

Krisiak enpleguan aldaketa kuantitatiboak eragin ditu, bai, baina baita kualitatiboak ere, neurri handi batean. Aurkeztera goazen txosten honetan ahalegina egiten da fokua aldaketa hauetara hurbiltzeko. Gure azterketan aldi jakin bat aipatzen da, hain zuzen ere, eskura ditugun iturri estatitistiko gehienek aipatzen dutena. Esaterako, eskura izan dugu Euskadiko Lan Merkatuaren Errolda-Eskari Fasea ganean egin den lau urteko azken estatitistika, baina gure txostenean aldi jakin batean jartzen da arreta: 2008an krisi handia lehertu zenetik 2016an BPGaren arabera susperraldi ekonomikoa gertatu zen arte joandako zortzi urteetan, hain zuzen. Ez da, beraz, egungo egoerari buruzko analisi bat; gehiago da eskura jartzen den material bat, enpleguan azkenaldian izan diren joera nagusiez gogoeta sakona egiteko. Aldi berean, uste dugu horrelako txostenek eta 2020aren amaieran ziur aski izango ditugun datu berriek aukera ematen digutela honakoa ikusteko: joera hauek egiaztatzen ote diren eta egoera ekonomikoak oro har egonkortzera egingo ote duen. Gure helburua, azken batean, horixe baino ez baita, tresnak eskaintzea diagnostiko zuzenagoak eta aberatsagoak egiteko; ez baitago errealitatea aldatzerik, haren berri zehatza izan ezean.

Bilbon, 2019ko abenduan

1. SARRERA.....	7
2. ENPRESA-EGITURAREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA.....	9
2.1. EAE-KO ESTABLEZIMENDU-KOPURUA ETA ENPLEGUA.....	9
2.2. PLANTILLEN AZTERKETA ETA BILAKAERA.	17
2.2.1.ADIN-TARTEAK	17
2.2.2.ENPLEGUA, SEXUKA	21
2.2.3.ZENBATEKO ANTZINATASUNA PLANTILLAN.....	24
2.2.4.ENPLEGUA, KONTRATU-MOTAREN ARABERA	27
2.2.5.ENPLEGUA, LANALDI-MOTAREN ARABERA	30
2.2.6.BILAKAERA, KATEGORIA PROFESIONALEN ARABERA	33
2.3. ENPRESA ESPORTATZAILEETAN ENPLEGUAK IZANDAKO BILAKAERA, ETA GLOBALIZAZIOAREN ERAGINAREN BALORAZIOA.....	43
3. NEGOZIOAREN MARTXA ERAGOZTEN DUTEN FAKTOREAK	45
3.1. 2016. URTEA.....	45
3.2. 5 ENPLEGUTIK GORAKO ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA. 2008-2012-2016 URTEAK	47
3.3. ESKULAN ESPEZIALIZATUAREN ESKASIAREN ARAZOA 5 ENPLEGU BAINO GEHIAGOKO ENPRESETAN.....	49
4. LANGILEAK KONTRATATZEKO PREMIEN KUDEAKETA.....	52
4.1. ARAZOAK ETA KONTRATAZIO-BIDEAK 2016AN	52
4.2. KONTRATAZIO-BIDEAK 2016AN.....	57
5. PLANTILLA IDEALA.....	59
6. LABURPENA ETA ONDORIOAK	62

1. SARRERA

Lau urtean behin, Lan Merkatuaren Errolda-Eskari Fasea deritzon lan estatistikoa (aurrerantzean, LME-EF) egiten du Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak. EAEko establezimenduetako enpleguaren ezaugarriak jasotzea da lan horren helburuetako bat.

Lan-merkatua eskaintzaren ikuspegitik aztertzen duten beste eragiketa estatistiko batzuetan zenbait pertsonari galderak egiten zaizkie euren lan-egoeraz; LME-EFn, aldiz, enpresak ematen du informazioa, bere lantokietako langileen ezaugarriei buruzkoa. Hori dela eta, beste ikuspegi batetik azter daiteke enplegua.

2016koa da azken errolda, non 321.901 langilek diharduten 6.400 establezimendutatik jaso baitzen informazio-lagina.

Errolda horretako datuak oinarri zirela prestatu dugu txosten hau, baina gure ekonomiaren bigarren eta hirugarren sektoreetako enpresak (establezimenduak) bakarrik aztertu ditugu, soldatapeko enplegua dutenak guztiak, barne direla kooperatibak eta lan-sozietateak. Azterketatik kanpo utzi ditugu alor hauek:

- Sektore publikoa: Ez dira sartzen Administrazio Orokorreko, Osasun Zerbitzuetako, Defentsako eta Hezkuntzako langile publikoak, ezta sektore publikoko erakundeetakoak ere (organismo autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, merkataritza-sozietateak eta abar).
- Beren ardurapeko enplegatuturik ez daukaten autonomoak (kendu egin da landun horien gaineko informazioa).
- Nekazaritza- eta arrantza-sektoreetako enpresak.
- Etxe-zerbitzuan lan egiten dutenak, familiek beren kabuz kontratatuak.

Bestalde, txosten honetan aztertutako enplegu-datuak honi bakarrik dagozkie: ikertutako enpresa-establezimenduek EAEn duten enpleguari. Ez da sartzen, beraz, enpresek EAEtik kanpoko establezimenduetan sortutako enplegua.

2008ko eta 2016ko LME-EFetan ageri ziren zenbait datu ere aztertu direnez txosten honetan, bi urte horietako enpleguaren egiturazko ezaugarriei buruzko informazioa jaso da eta, bide batez, sakonago jorratu dira 2016ko datuak, esanguratsu iritzitako zenbait alorretakoak.

Horregatik hautatu ditugu urte horiek: krisiaren aurreko hazkunde-garaiko azken urtean enpresek bidalitako informazioa konparatzeko aukera ematen digutelako, 2008an jada krisiaren eragina nabaritzen hasia bazen ere; 2016an, berriz, krisi-garaiaren aurreko mailara itzulia zen gure erkidegoko BPGa. Dena dela, 2012ko LME-EFko datuak ere sartu ditugu, egoki iritzi diogunean, aldagaien bilakaeraren ikuspegi hobea eskaintzearen.

“Enpresa” eta “establezimendu” hitzak sinonimoak balira bezala erabili dira txosten osoan, baina ez dira, eta “establezimendu” hitza erabili behar litzateke beti. Kasu askotan, bat datoz bi termino horiek, baina gerta daiteke zenbait enpresa EAEko establezimendu batean baino gehiagotan jardutea.

“Enplegua” kontzeptuari dagokionez, berriz, hau adierazten du: azken hiruhilekoan enpresan (establezimenduan) zegoen lanpostu-kopurua. Zehazki, LME-EFa egin den urte bakoitzeko urriaren 31koak dira enpleguari buruzko datuak.


Azkenik, eskerrak ematen dizkiogu Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari txosten hau egiteko behar izan ditugun Lan Merkatuaren Errolda-Eskari Faseko datu estatistikoak lagatzeagatik.

2. ENPRESA-EGITURAREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA

2.1. EAE-KO ESTABLEZIMENDU-KOPURUA ETA ENPLEGUA

Lan Merkatuaren Erroldaren arabera, 2008an 111.241 establezimendu zeuden aztertutako arloetan¹; lau urte geroago, 2012an, 112.483, eta 2016an, gure ekonomia jada krisiaren aurreko mailen gainetik zebilela, 105.241.

Enpleguaren bilakaerari dagokionez¹, berriz, % 12,6 egin zuen behera 2008ko urriaren 31tik 2012ko urriaren 31ra; aldiz, gora egin zuen 2012tik 2016ra (75.542 enplegu gehiago), baina ez zen 2008ko mailara iritsi (745.751).



Krisiaren hasieratik amaierara arte (2008tik 2016ra), % 5,4 jaitsi zen establezimendu-kopurua. Hiru herrialdeetan urritu zen enpresa-egitura, batez ere Araban (-% 9,3) eta Gipuzkoan (-% 8,0); Bizkaian, aldiz, txikiagoa izan zen jaitsiera (-% 2,6).

Landunen kopuruari dagokionez, artean 2008koa baino % 2,5 txikiagoa zen 2016an.

Lurraldeka, Bizkaian izan zen enplegu-jaitsierarik handiena 2008tik 2016ra (-% 3,4), gainerako herrialdeekin alderatuta. Enplegua gutxien jaitsi zen lurraldea, berriz, Araba izan zen (-% 0,6).

¹ Hauek ez dira sartzen: sektore publikoa, kontratatutako enplegurik gabeko autonomoak, nekazaritza- eta arrantza-sektoreetako enpresak, eta etxeko lanak egiten dituzten langileak.

2008tik 2016ra bitartean, % 5,4 egin zuen behera EAEko establezimenduen kopuruak aztertutako alorretan, eta % 2,5 haietako enpleguak

1. KOADROA

AZTERTUTAKO ALORRETA KO ENPRESA-ESTABLEZIMENDUEN KOPURUA, LURRALDE HISTORIKOKA

	Establezimendu-kopurua		Aldaketa-tasa 2008-2016
	2008	2016	
GUZTIRA	111.241	105.241	-% 5,4
Araba	15.360	13.925	-% 9,3
Gipuzkoa	38.160	35.111	-% 8,0
Bizkaia	57.721	56.205	-% 2,6

2. KOADROA


ENPRESA-ESTABLEZIMENDUEN KOPURU OSOA, LURRALDE HISTORIKOKA

	Enplegua		Aldaketa-tasa 2008-2016
	2008	2016	
GUZTIRA	745.751	727.051	-% 2,5
Araba	121.001	120.290	-% 0,6
Gipuzkoa	247.384	242.353	-% 2,0
Bizkaia	377.365	364.408	-% 3,4

Honenbestez, zertxobait handitu egin zen EAEko establezimenduen batez beteko tamaina 2008tik 2016ra bitartean (establezimenduko 6,7 enplegutik 6,9ra).

2. GRAFIKOA

2008TIK 2016RA ENPLEGUAK IZANDAKO BILAKAERA (ALDAKETA-TASAK)



Eraikuntzak izan zuen establezimendu-kopuruaren jaitsierarik handiena, ekoizpen-egiturako heren bat (-% 31,8) galdu baitzuen 2008tik 2016ra; ondoren, neurri txikiagoan, industria-sektoreak, non % 7,7 egin baitzuen behera establezimendu-kopuruak zortzi urteko epe horretan.

Aitzitik, zerbitzuen sektoreak ia bere horretan eutsi zion establezimendu-kopuru osoari 2008aren eta 2016aren artean (-% 0,6).

3. KOADROA

AZTERTUTAKO ALORRETA KO ENPRESA-ESTABLEZIMENDUEN KOPURUA, SEKTOREKA

	Establezimendu-kopurua		Aldaketa-tasa 2008-2016
	2008	2016	
GUZTIRA	111.241	105.241	-% 5,4
Industria	11.074	10.217	-% 7,7
Eraikuntza	14.531	9.904	-% 31,8
Zerbitzuak	85.637	85.120	-% 0,6

Enpleguak sektoreka izan zuen bilakaerari dagokionez, industriak eta eraikuntzak izan zuten enplegu-galerarik handiena 2008-2016 epean (% 17,2 eta % 44,7, hurrenez hurren). Aldiz, hirugarren sektorean % 11,8 hazi zen enplegua.

2008ko enpleguaren % 44,7 galdu zuen eraikuntzak; industrian, berriz, % 17,2 jaitsi zen langile-kopurua


Enplegu-kopuruaren jaitsiera proportzionalki establezimenduen baina handiagoa izan zenez, jaitsi zen egin zen batez besteko enplegua bai industriaren sektorean —2008an, 19,6 langile establezimenduko; 2016an, 17,76—, bai eraikuntzan —2008an, 5,3 enplegu establezimenduko; 2016an, 4,3—.

Zerbitzuen sektorean bakarrik egin zuen gora landun-kopuruak: % 11,8 igo zen enplegua aipatutako bi urte horien artean

Aldiz, zerbitzuen sektorean gora egin zuen enpleguak, establezimenduko, bi urte horien artean: 2008an, 5,3 enplegu zeukan establezimendu bakoitzak, batez beste; 2016an, 5,9.

4. KOADROA**ENPRESA-ESTABLEZIMENDUEN KOPURU OSOA, SEKTOREKA****2008-2016 EPEAN**


	Enplegua		Aldaketa-tasa 2008-2016
	2008	2016	
GUZTIRA	745.751	727.051	-% 2,5
Industria	217.452	180.148	-% 17,2
Eraikuntza	77.672	42.923	-% 44,
Zerbitzuak	450.627	503.980	% 11,8

3. GRAFIKOA**2008TIK 2016RA ENPLEGUAK IZANDAKO BILAKAERA (ALDAKETA-TASAK),
JARDUERA-SEKTOREKA**

Pixka bat gora egin zuen hirugarren sektoreko establezimenduen kopuruak, osoarekiko alderatuta, 2008-2016 epean, eta EAEko enpresa-egituraren % 76,9tik % 80,9ra iritsi zen 2016an. Sektore horretako enpleguak, berriz, are igoera handiagoa izan zuen, guztizkoarekiko, bi urte horien artean (2008an, guztizkoaren % 60,4, eta 2016an, guztizkoaren % 69,3).


Eraikuntzak izan zuen galera erlatiborik handiena: EAEko establezimenduen % 13,1 2008an, % 9,4 2016an. Enpleguak ere behera egin zuen sektore horretan (2008an, guztizkoaren % 10,4, eta 2016an, guztizkoaren % 5,9).

4. GRAFIKOA
ESTABLEZIMENDU-PORTZENTAJEA, URTEKA ETA JARDUERA-SEKTOREKA
2008-2016 EPEAN



Bestalde, apenas gutxitu zen industriako establezimenduen portzentajea, guztizkoarekiko: 2008an, industria-egitura osoaren % 10 zen; 2016an, berriz, % 9,7. Enpleguari dagokionez, 4,4 puntu jaitsi zen aipatutako bi urteen artean (2008an, guztizkoaren % 29,2; 2016an, guztizkoaren % 24,8).

5. GRAFIKOA
ENPLEGU-PORTZENTAJEA, GUZTIZKOAREKIKO, JARDUERA-SEKTOREKA 2008-2016
EPEAN



Hazi egin zen enplegua finantza-jardueretan eta enpresetarako zerbitzuetan, hezkuntzan, osasun-arloan, gizarte-zerbitzuetan eta beste zerbitzu batzuetan; gehien galdu zutenak, berriz, industria metalikoa eta eraikuntza izan ziren

5. KOADROA**ENPLEGUA, JARDUERA-EREMUKA (2008-2016)**

	2008	2016	Aldea	Igoera/Jaitsiera (%)
Industria, energia eta antzekoak	16.671	17.595	924	% 5,5
Industria metalikoa	147.531	116.656	-30.875	-% 20,9
Manufaktura-industria	53.251	45.897	-7.353	-% 13,8
Eraikuntza	77.672	42.923	-34.749	-% 44,7
Merkataritza, ostalaritza eta jatetxeak	177.133	170.575	-6.558	-% 3,7
Konponketak	8.466	7.584	-882	-% 10,4
Garraioa eta komunikazioak	44.374	43.094	-1.279	-% 2,9
Finantza-jarduerak eta enpresentzako zerbitzuak	135.026	145.637	10.610	% 7,9
Hezkuntza	19.242	39.655	20.413	% 106,1
Osasun-zerbitzuak	14.682	27.513	12.832	% 87,4
Gizarte-zerbitzuak	13.138	27.421	14.284	% 108,7
Beste zerbitzu batzuk	38.566	42.500	3.934	% 10,2
GUZTIRA	745.751	727.051	-18.700	-% 2,5

Jarduera-eremuka, 2008-2016 epean igo egin zen enplegu garbia alor hauetan: finantza-jarduerak eta enpresentzako zerbitzuak, hezkuntza, osasun-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak eta beste zerbitzu batzuk. Orotara, 62.073 enplegu sortu ziren alor horietan; gehien galdu zutenak, berriz, industria metalikoa (-30.875) eta eraikuntza (-34.749) izan ziren.

6. KOADROA**ESTABLEZIMENDU-KOPURUA, TAMAINAREN ARABERA (2008-2016)**

Tamaina	Establezimendu-kopurua		Aldaketa-tasa 2008-2016
	2008	2016	
GUZTIRA	111.241	105.241	-% 5,4
0-5 enplegu	87.604	82.697	-% 5,6
6-49 enplegu	21.686	20.707	-% 4,5
50-250 enplegu	1.609	1.651	% 2,6
250 enplegu baino gehiago	342	186	-% 45,6


7. KOADROA**ESTABLEZIMENDUETAKO ENPLEGU-KOPURU OSOA, TAMAINAKA AZTERTUTA (2008-2016)**

Tamaina	Enplegua		Aldaketa-tasa 2008-2016
	2008	2016	
GUZTIRA	745.751	727.051	-% 2,5
0-5 enplegu	198.698	176.955	-% 10,9
6-49 enplegu	292.368	289.455	-% 1,0
50-250 enplegu	145.095	159.317	% 9,8
250 enplegu baino gehiago	109.590	101.324	-% 7,5

Tamaina txikieneko establezimenduek pairatzen dute gehienbat ekonomiaren atzeraldia, eta gehiago kostatzen zaie krisitik ateratzea

Enpresak tamainaren arabera aztertuta, balantzerik txarrena mikroenpresek izan zuten 2008-2016 epean, hau da, sei enplegu baino gutxiago duten enpresek, zeinek 20.000 enplegu baino gehiago galdu baitzuten (2008an zeukaten enpleguaren % 10,9).

6. GRAFIKOA
ENPLEGUAREN BILAKAERA 2008TIK 2016RA (ALDAKETA-TASAK),
ESTABLEZIMENDUEN TAMAINAREN ARABERA



Gutxitu egin zen 250 langiletik gora zituzten establezimenduen kopurua ere (342tik 186ra), baina handitu egin zen establezimendu bakoitzeko langile-kopurua (32tik 544ra), proportzio txikiagoan murrizten baita enplegua horrelako enpresetan.

Aitzitik, areagotu egin zen establezimenduen eta enpleguen kopurua 50 eta 250 enplegu bitarteko enpresetan, eta haiena da epe horretako balantzerik onena. Enplegua % 9,8 hazi zen, eta gora egin zuen establezimendu bakoitzeko langileen kopuruak ere (90,2 langiletik 96,5era) aztertutako sektoreetan.

Litekeena da 2008an 250 langile baino gehiago eta 2016an 250 baino gutxiago zeuzkaten enpresek elikatu izana beheranzko hurrengo mailako establezimenduen kopurua, hots, 50 eta 250 enplegu bitartekoa, eta maila horretako langile-kopuruaren hazkundera eragin izana.

8. KOADROA**ENPLEGUAREN ALDAKETA, SEKTOREAREN ETA ESTABLEZIMENDUEN TAMAINAREN ARABERA. 2008-2016 (%)**

	GUZTIRA	0-5 enplegu	6-49 enplegu	50-250 enplegu	250 enplegu baino gehiago
SEKTOREA	-2,5	-10,9	-1,0	9,8	-7,5
Industria	-17,2	-3,4	-18,3	-15,5	-21,3
Eraikuntza	-44,7	-42,4	-43,0	-53,8	-52,6
Zerbitzuak	11,8	-6,8	15,4	44,8	13,3

Sektorearen eta establezimenduaren tamainaren araberako azterketak dioskunez, batez ere 50 eta 250 enplegu bitarteko establezimenduetan hazi zen enplegua 2008-2016 epean, eta tamaina txikienekoetan bakarrik egin zuen behera (0-5 enplegu).

Eraikuntzan, tamaina guztietako enpresetan jaitsi zen enplegua; 50 enplegutik gora zituzten establezimenduetan, handixeagoa izan zen jaitsiera.

Bigarren sektorean, berriz, establezimendu txikienek izan zuten jaitsierarik txikiena (%- 3,4); handienek, berriz, handiena (-% 21,3 250 enplegutik gorakoetan).


2.2. PLANTILLEN AZTERKETA ETA BILAKAERA

2.2.1. ADIN-TARTEAK

Lau adin-tarte hauetan banatu du LME-EFk urriaren 31n establezimenduek zeukatzen plantilla: 35 urtetik beherakoak, 35-44 urte bitartekoak, 55-65 urte bitartekoak eta 65 urtetik gorakoak.

Enpresetako plantilletan, gora egin du adin-tarte handienetako langile-kopuruak eta jaitsi egin da 35 urtetik beherakoena

2008., 2012. eta 2016. urteen arteko konparaketak erakusten digunez, gora egin du, pixkanaka, adin-tarte handienetako langileen pisu erlatiboak, eta, aldi berean, behera egin du 35 urtetik beherako langileenak.



2008an, 35 urtetik beherako ia 249.000 langilek ziharduten EAeko establezimenduetan. Hau da, hiru enplegutik bat (% 33,4) populaziorik gazteenaren esku zegoen. 2016an, aldiz, 35 urtetik beherako enpleguak lautik bat besterik ez ziren.

35-44 urte bitarteko enpleguak hartu zuen pisu erlatiborik handiena: 2008an, enpleguaren % 54,6, eta 2016an, % 61,1.

Guztizkoan ez du pisu handirik, baina aipatzekoa da 65 urtetik gorako langileen kopuruak izan duen gorakada: 1.937 lagunetik 3.447ra. Bestalde, ia hiru puntu egin zuen gora 55 urteko edo gehiagoko langileen kopuruak 2008-2016 epean, eta enplegu guztien % 14,9 izatera heldu zen (2008an, % 12).

Orokorra izan da enpresetako plantillen zahartze-prozesua EAEko ekoizpen-sarean, populazioaren zahartze orokorraren eta populazioa gazteenaren okupazio-tasa txikiagoaren eraginez. Dena den, ez du intentsitate bera izan prozesuak sektore guztietan: industrian, eta batez ere eraikuntzan, dago 35 urtetik beherako langile gutxien.

9. KOADROA

ENPLEGUA, ADINKA ETA SEKTOREKA (2008)

	2008				
	Enplegua	<35 urte	35-54 urte	55-65 urte	>65 urte
Sektorea					
Industria	217.452	66.423	115.614	35.070	345
Eraikuntza	77.672	23.608	45.835	8.068	161
Zerbitzuak	450.627	158.871	246.015	44.310	1.431
GUZTIRA	745.751	248.902	407.464	87.448	1.937
	Enplegua	<35 urte	35-54 urte	55-65 urte	>65 urte
Industria	% 100	% 30,5	% 53,2	% 16,1	% 0,2
Eraikuntza	% 100	% 30,4	% 59,0	% 10,4	% 0,2
Zerbitzuak	% 100	% 35,3	% 54,6	% 9,8	% 0,3
GUZTIRA	% 100	% 33,4	% 54,6	% 11,7	% 0,3

Eraikuntzaren sektorean, adibidez, 35 urtetik gorakoak ziren langileen % 82,1; 2008an, aldiz, % 69,6koa zen portzentajea. Langile-kopuruak nabarmen egin du behera sektore horretan, eta gora adin handieneko langileen pisu erlatiboak.

10. KOADROA

ENPLEGUA, ADINKA ETA SEKTOREKA (2016)

	2016				
	Enplegua	<35 urte	35-54 urte	55-65 urte	>65 urte
Sektorea					
Industria	180.148	37.334	113.508	28.675	631
Eraikuntza	42.923	7.694	29.513	5.556	159
Zerbitzuak	503.980	129.689	301.097	70.534	2.659
GUZTIRA	727.051	174.717	444.119	104.765	3.449
	Enplegua	<35 urte	35-54 urte	55-65 urte	>65 urte
Industria	% 100	% 20,7	% 63,0	% 15,9	% 0,4
Eraikuntza	% 100	% 17,9	% 68,8	% 12,9	% 0,4
Zerbitzuak	% 100	% 25,8	% 59,7	% 14,0	% 0,5
GUZTIRA	% 100	% 24,0	% 61,1	% 14,4	% 0,5

Industriari dagokionez, 2016an % 79,3 zen 35 urtetik gorako langileen portzentajea; 2008an, berriz, % 69,6. Epe horretan, zerbitzuen sektoreak izan zuen balantzerik orekatuena, baina hor ere jaitsi egin da 35 urtetik beherako langileen kopurua (2008an, % 35,3; 2016an, % 25,8).

Industrian, zertxobait behera egin zuen 55 eta 65 urte bitarteko langileen portzentajeak (% 16,1 2008an, eta % 15,9 2016an); gainerako sektore guztietan, aldiz, gora egin zuen.

11. KOADROA

ENPLEGUA, ADINAREN ETA ESTABLEZIMENDUAREN TAMAINAREN ARABERA (2008)

	2008				
	Enplegua	<35 urte	35-54 urte	55-65 urte	>65 urte
Tamaina					
0-5 enplegu	198.698	57.083	116.973	23.501	1.141
6-49 enplegu	292.368	106.347	157.525	28.002	494
50-250 enplegu	145.095	49.089	77.122	18.680	203
250 enplegu baino gehiago	109.590	36.383	55.844	17.265	98
GUZTIRA	745.751	248.902	407.464	87.448	1.937
	Enplegua	<35 urte	35-54 urte	55-65 urte	>65 urte
0-5 enplegu	% 100	% 28,7	% 58,9	% 11,8	% 0,6
6-49 enplegu	% 100	% 36,4	% 53,8	% 9,6	% 0,2
50-250 enplegu	% 100	% 33,8	% 53,2	% 12,9	% 0,1
250 enplegu baino gehiago	% 100	% 33,2	% 51,0	% 15,7	% 0,1
GUZTIRA	% 100	% 33,4	% 54,6	% 11,7	% 0,3

12. KOADROA**ENPLEGUA, ADINAREN ETA ESTABLEZIMENDUAREN TAMAINAREN ARABERA (2016)**

	2016				
	Enplegua	<35 urte	35-54 urte	55-65 urte	>65 urte
Tamaina					
0-5 enplegu	176.955	35.987	111.551	27.899	1.517
6-49 enplegu	289.455	78.115	175.200	35.044	1.096
50-250 enplegu	159.317	38.334	95.636	24.747	600
250 enplegu baino gehiago	101.324	22.281	61.732	17.075	236
GUZTIRA	727.051	174.717	444.119	104.765	3.449
	Enplegua	<35 urte	35-54 urte	55-65 urte	>65 urte
0-5 enplegu	% 100	% 20,3	% 63,0	% 15,8	% 0,9
6-49 enplegu	% 100	% 27,0	% 60,5	% 12,1	% 0,4
50-250 enplegu	% 100	% 24,1	% 60,0	% 15,5	% 0,4
250 enplegu baino gehiago	% 100	% 22,0	% 60,9	% 16,9	% 0,2
GUZTIRA	% 100	% 24,0	% 61,1	% 14,4	% 0,5


Enpresaren tamainari dagokionez, horrek baino eragin handiagoa du sektoreak adin handieneko langile-kopuruaren areagotzean, eta sektorekako azterketan baino homogeneotasun handixeagoa sumatzen da. Enpresen tamaina aztertuz gero, ikusten da aldaketarik, baina ez apartekorik, eta batezbestekotik hurbil zegoen aztertutako adin-tarte bakoitzaren pisua bai 2008an, bai 2016an.

2.2.2. ENPLEGUA, SEXUKA

LME-EFn aztertutako alorretan, 2008an 287.511 emakume eta 458.240 gizon landun zeuden. Handik lau urtera, 2012an, behera egin zuten kopuru horiek: 266.677 emakume eta 384.833 gizon, % 7,2 eta % 16 gutxiago, hurrenez hurren.


2012tik 2016ra, % 18,8 hazi zen emakume landunen portzentajea; gizonena, berriz, % 6,6 bakarrik.

8. GRAFIKOA
GIZONEN ETA EMAKUMEEN ENPLEGUA 2008-2012-2016 URTEETAN



Honenbestez, langile-populazio osoarekin alderatuta, gora egin du emakumeen portzentajeak hiru ekitaldi horietan: 2008an, % 38,6 zen; 2012an, % 40,9, eta 2016an, azkenik, % 43,6.

9. GRAFIKOA
GIZONEK ETA EMAKUMEEK 2008-2012-2016 URTEETAN ZUTEN PISU ERLATIBOA



13. KOADROA**ENPLEGU-KOPURU OSOA, SEXUKA, 2008-2016 EPEAN**

	Enplegua		Aldaketa-tasa 2008-2016
	2008	2016	
GUZTIRA	745.751	727.051	-% 2,5
Gizonak	458.240	410.138	-% 10,5
Emakumeak	287.511	316.913	% 10,2

2008tik 2016ra bitartean populazio landunak izandako bilakaera aztertuta, hona emaitza: % 10,2 egin zuen gora emakume langileen portzentajeak aztertutako eremuetan (287.511tik 316.913ra); gizonezkoenak, aldiz, % 10,5 egin zuen behera (2008an, 458.240 2008an; 2016an, 410.138). Testuinguruari dagokionez, % 2,5 jaitsi zen langile-populazioa epe horretan.

2008tik 2016ra, % 10,2 hazi zen emakume landunen portzentajea; gizonena, berriz, % 10,5 jaitsi zen

14. KOADROA**ENPLEGUA, SEXUKA ETA SEKTOREKA, 2008-2016 EPEAN**

	2008		2016	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Industria	174.164	43.288	143.349	36.800
Eraikuntza	67.842	9.830	37.213	5.709
Zerbitzuak	216.234	234.393	229.576	274.404
GUZTIRA	458.240	287.511	410.138	316.913


Gizonezkoen kopuruari dagokionez, emakumeen kasuan bezala sektore guztietan egin zuen behera, zerbitzuetan izan ezik; dena dela, hirugarren sektorean izandako hazkundera emakumeen kasuan izandakoa baino txikiagoa da, eta handiagoa gainerako sektoreetan izandako jaitsiera.

Industrian eta eraikuntzan gizonen enpleguak emakumeenak baino askoz ere jaitsiera handiagoa pairatu izanak, eta sektore-zerbitzuan gizonen enpleguak hazkunde txikiagoa, ondorio hau ekarri zuen: sektore guztietan igo zen emakumeen partaidetza.

Nolanahi dela ere, gizonak gehiago nabarmena zuten, bai 2008an, bai 2016an, industrian eta eraikuntzan; emakumeak, aldiz, nagusi ziren zerbitzuen sektorean.

Enpresen tamainaren araberako azterketak erakusten duenez, zenbat eta handiagoa enpresa, orduan eta handiagoa gizonen enplegu-portzentajea, bai 2008an, bai 2016an.


10. GRAFIKOA
GIZONEN ETA EMAKUMEEN PISU ERLATIBOA, SEKTOREKA, 2008-2016 EPEAN



Enpresa txikienetan izan ezik, non emakumeen pisua 1,1 puntu bakarrik igo baitzen, gainerako segmentuetan ia 7 puntu egin zuen gora emakumeen partaidetzak, batez ere 250 enplegu baino gehiago dituzten enpresetan, non emakumeak langile-populazioaren % 32,5 izatetik (2008) % 39,5era igo baitziren (2016).

Zenbat eta handiagoa enpresa, orduan eta handiagoa gizonen enplegu-portzentajea, bai 2008an bai 2016an

11. GRAFIKOA
GIZONEN ETA EMAKUMEEN PISU ERLATIBOA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA, 2008-2016 EPEAN



Bai 2008an, bai 2016an, emakumeak ziren langile gehienak sektore-zerbitzuan eta 5 enplegu baino gutxiagoko enpresetan.

2.2.3. ZENBATEKO ANTZINATASUNA PLANTILLAN


Plantillak establezimenduan duen antzinatasuna ere aztertu du LME-EFk, eta bi multzotan banatu du: 5 urteko antzinatasuna edo horik gorakoa duen enplegua, eta 5 urtetik beherako antzinatasuna duena.

2008tik 2012ra 6,6 puntu igo zen enpresan 5 urteko antzinatasuna edo hortik gorakoa zuten langileen kopurua; beraz, pentsatzekoa da batez ere enpresan denbora gutxien zeramaten langileei eragin ziela bi urte haien arteko enplegu-doikuntza gogorak.

2016an langileek enpresan zeukaten antzinatasuna 2012koarekin alderatuta, alde txikia ikusten da: 1,2 puntu egin zuen gora antzinatasun txikieneko langileen portzentajeak.

12. GRAFIKOA


ENPLEGUAREN BILAKAERA 2008-2012-2016 EPEAN, PLANTILLAREN ANTZINATASUNAREN ARABERA



Antzinatasunaren araberako enplegu-dinamika hori adin-tarteen araberakoaren antzekoa da, bieran ikusten baita behera egin zuela epe horretan enplegu gazteenak (35 urtetik beherakoena) eta, aldiz, gora egin zuela 35 urtetik gorako pisuak plantilletan.

2008ko eta 2016ko datuen arteko konparaketak erakusten digunez, ia 6 puntu igo zen enpresa berean lanean 5 urte baino gehiago zeramaten langileen portzentajeak: 2008an, % 59,9; 2016an, % 65,3.

13. GRAFIKOA
ALDAKETA-TASAK ETA SORTUTAKO ENPLEGUA, PLANTILLAREN
ANTZINATASUNAREN ARABERA, 2008-2016 EPEAN



Igo egin zen, 2008tik 2016ra, enpresan 5 urtetik gorako antzinasuna zuten langileen portzentajea

Orokorra izan zen antzinasun handiagoko langileen kopuruaren handitzea, baina sektorekako azterketaren arabera, bai 2008an, bai 2016an industriak jarraitzen zuen langileen antzinasun-tasa handiena izaten, eta, aldi berean, sektore hori zen lanean bost urte baino gutxiago zeramaten langileen portzentaje txikiena zeukana.

Eraikuntzan, aldiz, handiagoa izan zen antzinasun urriagoko langileen portzentaje-jaitiera; izan ere, enpleguaren gutxitzea ere handiagoa izan zen eraikuntzan epe horretan.

15. KOADROA
ENPLEGUAREN BILAKAERA 2008-2016 EPEAN, ANTZINATASUNAREN ETA SEKTOREAREN
ARABERA

	2008			2016		
	GUZTIRA	5 urte edo gehiago	5 urte baino gutxiago	GUZTIRA	5 urte edo gehiago	5 urte baino gutxiago
Industria	217.452	143.794	73.659	180.148	131.329	48.819
Eraikuntza	77.672	43.604	34.068	42.922	29.516	13.406
Zerbitzuak	450.627	259.677	190.949	503.980	313.614	190.366
GUZTIRA	745.751	447.075	298.676	727.051	474.459	252.592

Bestalde, zerbitzuen sektorean zegoen, 2016an, enpresa berean lanean denbora gutxien zeraman langile-portzentajerik handiena. Enplegua sortzeko dinamika positiboaren ondorio izan daiteke hori (sektore horretan bakarrik hazi zen enplegua 2008tik 2016ra), baina beste datu hau ere kontuan hartzekoa da: 2008an, 5 urtetik gorako antzinasuna zuten langileen kopurua urte hartako batezbestekoa baino txikiagoa zen.

16. KOADROA**ENPLEGUAREN PISU ERLATIBOA 2008-2016 EPEAN, ANTZINATASUNAREN ETA SEKTOREAREN ARABERA**

	2008		2016	
	5 urte edo gehiago	5 urte baino gutxiago	5 urte edo gehiago	5 urte baino gutxiago
Industria	66,1	33,9	72,9	27,1
Eraikuntza	56,1	43,9	68,8	31,2
Zerbitzuak	57,6	42,4	62,2	37,8
GUZTIRA	59,9	40,1	65,3	34,7

Enpresen tamaina zein den, enplegu-maila guztietan egin zuen gora enpresan denbora gehiago zeraman langileen kopuruak, baina, kasu horretan, sektorekako azterketan baino homogeneoagoak izan ziren aldaketak.

17. KOADROA**ENPLEGUAREN BILAKAERA 2008-2016 EPEAN, ANTZINATASUNAREN ETA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA**

	2008		2016	
	5 urte edo gehiago	5 urte baino gutxiago	5 urte edo gehiago	5 urte baino gutxiago
GUZTIRA	447.075	298.676	474.459	252.592
0-5 enplegu	124.594	74.103	121.270	55.685
6-49 enplegu	165.949	126.419	181.188	108.266
50-250 enplegu	87.581	57.514	104.420	54.897
250 enplegu baino gehiago	68.951	40.639	67.581	33.743

18. KOADROA**ENPLEGUAREN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA 2008-2016 EPEAN, ANTZINATASUNAREN ETA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (%)**

	2008		2016	
	5 urte edo gehiago	5 urte baino gutxiago	5 urte edo gehiago	5 urte baino gutxiago
GUZTIRA	59,9	40,1	65,3	34,7
0-5 enplegu	62,7	37,3	68,5	31,5
6-49 enplegu	56,8	43,2	62,6	37,4
50-250 enplegu	60,4	39,6	65,5	34,5
250 enplegu baino gehiago	62,9	37,1	66,7	33,3


2016an, 6 eta 49 langile bitarteko enpresetan zeukan pisu erlatibo handiena antzinasun txikieneko enpleguak (% 37,4). Gauza bera gertatzen zen 2008an ere, pisu erlatiboa handiagoa zelarik (% 43,2).

2.2.4. ENPLEGUA, KONTRATU-MOTAREN ARABERA


Kontratu-motaren araberako enpleguaren bilakaera ere aztertu du LME-EFk. Bada, gauzak erraztearren, bi multzo handitan banatu dira LME-EFren galde-sortan enpresei kontratu-tipologia ugarietz egiten zaizkien galderak:

- Lehen multzoan, enplegu mugagabea dago, tartean direla kontratu finkodun soldatapeko langileak (kontratua aldizkakoa izan ala ez).
- Bigarren multzo handian, berriz, aldi baterako kontratuak dituzten soldatapeko langileen kontratazio-modalitate guztiak sartzen dira. Multzo horretakoak dira praktiketako kontratuak eta prestakuntzakoak ere.

14. GRAFIKOA
ENPLEGUAREN BILAKAERA, KONTRATU-MOTAREN ARABERA



15. GRAFIKOA
ENPLEGUAREN PISU ERLATIBOA, KONTRATU-MOTAREN ARABERA



Orain arte, gizarte-ekonomiako langileak ere (kooperatiba eta lan-sozietateetakoak) sartu ditugu aztertutako eremuetan, bai eta landun autonomoak ere.

Alabaina, sektore horietan lan egiten duten langileen lan-harremanaren ezaugarri bereziak direla eta, atal honetan azterketatik kanpo utzi ditugu gizarte-ekonomiako langileak eta autonomoak, enplegu finkoaren eta behin-behinekoaren bilakaera aztertzean ahalik eta txikiena izan zedin distortsio-maila.

Nabarmen egin zuen behera aldi baterako enpleguak 2008tik 2012ra; hori dela eta, hobetu egin zen, aztertutako eremuetan, kontratu finkodun langileen portzentajea (2008an, % 80,5; 2012an, % 84,5).

Ekonomiaren eta enpleguaren suspertzeari esker, berriro ere areagotu egin da aldi baterako enplegua duen langileen portzentajea, zeina 2008ko mailaren parera itzuli baitzen 2016an

Baina enpleguaren suspertzeak areagotu egin du, beste behin ere, aldi baterako kontratua duten langileen portzentajea (2016an, % 19,3), eta 2008ko zifren antzekoetara itzularazi (% 19,5).

19. KOADROA

ENPLEGUAK IZAN ZUEN BILAKAERA, KONTRATU-MOTAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA, 2008-2016 EPEAN

	2008			2016		
	GUZTIRA	Mugagabeak	Aldi baterakoak	GUZTIRA	Mugagabeak	Aldi baterakoak
Industria	180.522	151.489	29.032	155.152	132.025	23.127
Eraikuntza	62.455	42.877	19.578	37.405	29.996	7.408
Zerbitzuak	361.893	292.788	69.105	422.829	334.678	88.151
GUZTIRA	604.869	487.154	117.715	615.386	496.700	118.686

20. KOADROA

ENPLEGUAREN PISU ERLATIBOA, KONTRATU-MOTAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA (%), 2008-2016 EPEAN

	2008. urtea		2016. urtea	
	Mugagabeak	Aldi baterakoak	Mugagabeak	Aldi baterakoak
Industria	83,9	16,1	85,1	14,9
Eraikuntza	68,7	31,3	80,2	19,8
Zerbitzuak	80,9	19,1	79,2	20,8
GUZTIRA	80,5	19,5	80,7	19,3

Sektoreka aztertuta aldi baterako kontratua zuten langileak, hona emaitzak: behera egin zuen apur bat industrian zeukaten pisuak (-1,2 puntu), eta nabarmen eraikuntzan (-11,5 puntu), non biziagoa izan baitzen enpleguaren doikuntza; zerbitzuetan, berriz, igo egin zen (+1,7). Lehenago genioenez, langile finkoen eta aldi baterako enpleguaren portzentajea 2008koaren antzekoa zen 2016an hiru sektoreetan.

Enpresaren tamainari gagozkiola, berriz, zenbat eta handiagoa izan enpresaren tamaina, orduan eta aldi baterako enplegu gehiago, bai 2008an, bai 2016an. Epe horretan, 250 enplegu baino gehiago zuten enpresetan egin zuen batez ere gora aldi baterako enpleguaren pisuak.

Tamaina handieneko enpresetan izan ezik, non 4,3 puntu egin baitzuen gora aldi baterako enpleguak 2008-2016 epean, gainerakoetan txikiagoak izan ziren aldaketak, eta txikienetan zein 50-250 enplegudun enpresetan apur bat behera ere egin zuen aldi baterako langileen portzentajeak.

21. KOADROA

ENPLEGUA, KONTRATU-MOTAREN ETA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA, 2008-2016 EPEAN

	2008. urtea		2016. urtea	
	Mugagabeak	Aldi baterakoak	Mugagabeak	Aldi baterakoak
GUZTIRA	487.154	117.715	496.700	118.686
0-5 enplegu	106.846	13.778	120.571	14.163
6-49 enplegu	213.662	49.360	215.999	51.082
50-250 enplegu	98.778	31.093	103.739	29.243
250 enplegu baino gehiago	67.868	23.484	56.391	24.198

22. KOADROA

ENPLEGUAREN PISU ERLATIBOA, KONTRATU-MOTAREN ETA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (%) 2008-2016 EPEAN

	2008. urtea		2016. urtea	
	Mugagabeak	Aldi baterakoak	Mugagabeak	Aldi baterakoak
GUZTIRA	80,5	19,5	80,7	19,3
0-5 enplegu	88,6	11,4	89,5	10,5
6-49 enplegu	81,2	18,8	80,9	19,1
50-250 enplegu	76,1	23,9	78,0	22,0
250 enplegu baino gehiago	74,3	25,7	70,0	30,0

2.2.5. ENPLEGUA, LANALDI-MOTAREN ARABERA

Enplegua kontratu-motaren arabera aztertzekeo gizarte-ekonomiako langileak eta autonomoak alde batera utzi ditugu; bada, bai atal honetan, bai txosteneko gainerakoetan, aztertutako alorretako enplegu osoa izan dugu kontuan berriro ere.

2008tik 2016ra, etengabe hazi zen lanaldi partzialeko enplegua: 2008an, landunen % 12,7 ari ziren lanaldi partzialesan; 2012an, % 15,3, eta 2016an, ia % 20 (% 19,8).

2008tik aurrera, gora egin zuen, pixkanaka, lanaldi partzialeko kontratua zuten langileen kopuruak.

Zerbitzuen sektoreko enplegu-hazkundeak eta eraikuntzako jaitsiera handiak (baita industriakoak ere, neurri txikiagoan) lanaldi partzialeko enpleguaren igoera handia eragin zuten. Gogoan izateko moduko datua da lanaldi partzialesan diharduten 10 langiletik 9k (% 91,4) zerbitzuen sektorean egiten dutela lan.

23. KOADROA

ENPLEGUA, LANALDI-MOTAREN ARABERA, SEKTOREKA 2008-2012-2016 EPEAN

	2008		2012		2016	
	Osoa	Partziala	Osoa	Partziala	Osoa	Partziala
GUZTIRA	650.774	94.977	551.927	99.582	583.104	143.947
Industria	206.001	11.451	170.490	10.083	170.410	9.739
Eraikuntza	74.710	2.962	51.465	2.569	40.278	2.644
Zerbitzuak	370.063	80.563	329.972	86.929	372.416	131.564

24. KOADROA

LANALDI PARTZIALEKO ENPLEGUA, SEKTOREKA 2008-2012-2016 URTEETAN

	2008		2012		2016	
	Lanaldi partzialeko langileak	Guztizkoarekiko portzentajea	Lanaldi partzialeko langileak	Guztizkoarekiko portzentajea	Lanaldi partzialeko langileak	Guztizkoarekiko portzentajea
GUZTIRA	94.977	% 100,0	99.582	% 100,0	143.947	% 100,0
Industria	11.451	12,1%	10.083	10,1%	9.739	% 6,8
Eraikuntza	2.962	3,1%	2.569	2,6%	2.644	% 1,8
Zerbitzuak	80.563	% 84,8	86.929	% 87,3	131.564	% 91,4

25. KOADROA

ENPLEGUAREN PISUA (%), LANALDI-MOTAREN ARABERA ETA SEKTOREKA, 2008-2012-2016 EPEAN


	2008		2012		2016	
	Osoa	Partziala	Osoa	Partziala	Osoa	Partziala
GUZTIRA	87,3	12,7	84,7	15,3	80,2	19,8
Industria	94,7	5,3	94,4	5,6	94,6	5,4
Eraikuntza	96,2	3,8	95,2	4,8	93,8	6,2
Zerbitzuak	82,1	17,9	79,1	20,9	73,9	26,1

Lanaldi partzialeko enpleguaren pisu erlatiboa apenas aldatu zen industrian 2008-2016 epean, eta hazi egin zen zerbitzuen sektorean eta eraikuntzan

Dinamika hori dela eta, zerbitzuen sektorean enpleguen % 17,9tik % 26,1era igo zen 2016an lanaldi partzialeko enpleguaren garrantzi erlatiboa; aldiz, industrian apenas aldatu zen lanaldi partzialeko enpleguaren pisu erlatiboa 2008-2016 epean (enplegu guztiaren % 5,4 besterik ez da, hirugarren sektorean baino bost aldiz gutxiago).


Eraikuntzan ere igo egin zen lanaldi partzialeko enpleguaren garrantzi erlatiboa 2008tik 2016ra bitartean, baina guztizko enplegu-oinarri txikiagoa zuela, nabarmen jaitsi baitzen enplegua sektore horretan 2008ko atzeraldiaren eraginez.

**16. GRAFIKOA
ENPLEGUA, LANALDI-MOTAREN ARABERA (2008-2016)**



Lanaldi partzialesan ziharduten langileen portzentajeak % 51,6 (ia 50.000 langile gehiago) egin zuen gora 2008tik 2016ra; lanaldi osoko enpleguak, aldiz, % 10,4 egin zuen behera 2008koarekin alderatuta (60.000 langile).

**17. GRAFIKOA
ENPLEGUAREN PISU ERLATIBOA, LANALDI-MOTAREN ARABERA (2008-2016)**



Enpresen tamainaren araberako azterketari dagokionez, berriz, aztertutako alor guztietan egin zuen gora lanaldi partzialeko enplegu garbiak 2008-2016 epean, sektorekako azterketan baino homogeneoago egin ere, eta 50-250 enplegu bitarteko enpresetan bakarrik izan zen lanaldi partzialeko enpleguaren pisua 2016ko batezbestekoa baino txikixeagoa (2,7 puntu).

26. KOADROA


ENPLEGUAREN PISU ERLATIBOA, LANALDI-MOTAREN ETA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA, 2008-2016 EPEAN

	2008		2016	
	Osoa	Partziala	Osoa	Partziala
Tamaina	87,3	12,7	80,2	19,8
0-5 enplegu	86,0	14,0	78,4	21,6
6-49 enplegu	88,9	11,1	80,2	19,8
50-250 enplegu	87,8	12,2	82,9	17,1
250 enplegu baino gehiago	84,5	15,5	79,0	21,0


2.2.6. BILAKAERA, KATEGORIA PROFESIOALEN ARABERA

Enpleguak kategoriaka banatuta aztertzeke aukera ere ematen digu Lan Merkatuaren Erroldak, ikertu diren enpresetatik jasotako erantzunen arabera.

18. GRAFIKOA
ENPLEGUA, KATEGORIA PROFESIOALEN ARABERA. BALIO ABSOLUTUAK. 2008-2012-2016



19. GRAFIKOA
ENPLEGUA, KATEGORIA PROFESIOALEN ARABERA. URTE BAKOITZEKO ENPLEGU OSOAREN %. 2008-2012-2016



Kategoria hauetan sailkatzen du enplegua LME-EFk: zuzendariak, teknikariak eta profesional laguntzaileak, erdi-mailako arduradunak, enplegatu administrariak eta bulegoko administrariak, langile kualifikatuak eta kualifikazio gabeko langileak.

2008tik 2012ra, % 12,6 jaitsi zen aztertutako establezimenduetako langileen kopurua: 745.751 landun ziren 2008an; 651.509, ostera, 2012an.

Bi urte horietan, zertxobait gora egin zuen trebakuntza handia eskatzen duten lanpostuen pisuak (zuzendariak, teknikari laguntzaileak, erdi-mailako arduradunak, enplegatu administrariak), nahiz eta nabarmen egin behera enpleguak; aldiz, behera egin zuen langile kualifikatuen pisuak (2008an, guztizkoaren % 47; 2012an, % 42,9) eta bere horretan iraun zuen kualifikaziorik gabeko langileen portzentajeak (2008an, % 12,6; 2012an, % 12,5).

Hazi egin zen 2008-2016 epean kualifikaziorik gabeko lanpostuetan ziharduten langileen kopurua

Ekonomiaren susperraldia iristean, kategoria profesional guztietan hazi zen enplegua 2016an, 2012arekin alderatuta, baina handiagoa izan zen hazkundera kualifikaziorik gabeko langileen kategorian, eta bereziki eskasa langile kualifikatuen multzoan.

Honenbestez, langile kualifikatuen portzentajeak behera egin zuen, beste behin ere, soldatapeko langileen guztizkoarekin alderatuta (2012an, % 42,9; 2016an, % 39,4, ia 3,5 puntu gutxiago); aldiz, kualifikaziorik gabeko langileen portzentajea %12,5etik % 15,9ra igo zen 2012tik 2016ra.

2008. ETA 2016. URTEEN KONPARAZIOA

Txosten honen aurkezpenean adierazi dugunez, azterketa espezifikoko bat egingo dugu, eta 2008ko egoera eta 2016ko elkarrekin konparatuko, bi "argazki" alderatzeko: bata, krisiaren aurreko egoerarena; bestea, krisiaren amaierakoarena.

2008tik 2016ra, % 2,5 jaitsi zen aztertutako establezimenduetako langileen kopurua: 745.751 landun ziren 2008an; 727.051, ostera, 2016an.

Sektoreka, zerbitzuetan bakarrik egin zuen gora landunen kopuruak 2008-2016 epean, eta behera egin zuen industrian eta eraikuntzan, batez ere bigarren horretan, non 2008an baino % 44,7 txikiagoa baitzen landunen portzentajea 2016an.

Kategoria profesional guztietan izan zuten eragina sektoreetako aldaketa horiek:

- 2008tik 2016ra bitartean, hazi egin zen kualifikazio handieneko enplegua (zuzendariak, teknikari laguntzaileak, erdi-mailako arduradunak, enplegatu administrariak).
- Behera egin zuen kategoria profesional bakarra, berriz, langile kualifikatuena izan zen: 2008an, soldatapeko populazio osoaren % 46,9 ziren; 2016an, % 39,4. Beraz, batezbestekoa baino askoz handiagoa izan zen kategoria horren jaitsiera.
- Kualifikaziorik gabeko langileen portzentajeak, berriz, gora egin zuen (soldatapeko populazioaren % 12,6 zen 2008an, eta % 15,9, ostera, 2016an).

Langile kualifikatuen multzoan, jatetxeetako eta zerbitzu profesionaletako langileen kopuruak bakarrik egin zuen gora (36.859 langile gehiago); gainerako multzoetan, aldiz, behera (101.204 langile gutxiago), nekazaritza- eta arrantza-sektoreetako langile kualifikatuenean izan ezik (1.171 langile gehiago).

27. KOADROA

ENPLEGUA, KATEGORIA PROFESIOALEN ARABERA (2008-2016)

	2008	2016	Aldea	Igoera/Jaitsiera (%)
Zuzendariak	58.536	77.166	18.629	% 31,8
Teknikariak eta profesional laguntzaileak	123.414	117.844	-5.570	-% 4,5
Erdi-mailako arduradunak	36.058	39.600	3.542	% 9,8
Enplegatu administrariak eta bulegariak	84.561	90.721	6.160	% 7,3
Langile kualifikatuak	349.393	286.221	-63.172	-% 18,1
Jatetxeak eta zerbitzu profesionalak	63.868	100.727	36.859	% 57,7
Babes- eta segurtasun-zerbitzuak	10.146	5.088	-5.058	-% 49,9
Merkataritzako saltzaileak eta antzekoak	71.247	54.330	-16.917	-% 23,7
Nekazaritza eta arrantza	1.077	2.249	1.171	% 108,7
Eraikuntza	39.923	13.348	-26.575	-% 66,6
Erauzketa-industriak, metalurgia, makineriaren eraikuntza eta antzekoak	56.067	46.978	-9.088	-% 16,2
Arte grafikoak, ehungintza eta jantzigintza, elikagaiak, ebanistak eta artisauak	20.767	13.775	-6.993	-% 33,7
Makineria finkoko instalazio industrialen operadoreak, muntatzaileak eta mihizatzaileak	54.925	31.980	-22.945	-% 41,8
Makineria mugikorrek gidariak eta operadoreak	31.374	17.746	-13.628	-% 43,4
Kualifikazio gabeko langileak	93.788	115.499	21.711	% 23,1
GUZTIRA	745.751	727.051	-18.700	-% 2,5

Jaitsiera handiena —bai absolutua, bai erlatiboa— eraikuntza-sektoreko langile kualifikatuena izan zen, atzetik zituela makineria finkoko instalazio industrialetako operadoreena, muntatzaileena eta mihizatzaileena, eta makineria mugikorreko gidariena eta operadoreena. Halaber, handia izan zen merkataritzako saltzaileen eta antzekoen jaitsiera ere.

Jairsiera handiena eraikuntza-sektoreko langile kualifikatuena izan zen, atzetik zituela makineria finkoko instalazio industrialetako operadoreena, muntatzaileena eta mihizatzaileena; igoera handiena, berriz, jatetxeetako eta zerbitzu profesionaletako langileena izan zen

28. KOADROA

ENPLEGUA, KATEGORIA PROFESIOALEN ARABERA (2008-2016)

	2008	Guztizkoarekiko % (2008)	2016	Guztizkoarekiko % (2016)
Zuzendariak	58.536	% 7,8	77.166	% 10,6
Teknikariak eta profesional laguntzaileak	123.414	% 16,5	117.844	% 16,2
Erdi-mailako arduradunak	36.058	% 4,8	39.600	% 5,4
Enplegatu administrariak eta bulegariak	84.561	11,3%	90.721	12,5%
Langile kualifikatuak	349.393	% 46,9	286.221	% 39,4
Jatetxeak eta zerbitzu profesionalak	63.868	% 8,6	100.727	% 13,9
Babes- eta segurtasun-zerbitzuak	10.146	% 1,4	5.088	% 0,7
Merkataritzako saltzaileak eta antzekoak	71.246	% 9,6	54.330	% 7,5
Nekazaritza eta arrantza	1.077	% 0,1	2.249	% 0,3
Eraikuntza	39.923	% 5,4	13.348	% 1,8
Erauzketa-industriak, metalurgia, makineriaren eraikuntza eta antzekoak	56.067	% 7,5	46.978	% 6,5
Arte grafikoak, ehungintza eta jantzigintza, elikagaiak, ebanistak eta artisauak	20.767	% 2,8	13.775	% 1,9
Makineria finkoko instalazio industrialen operadoreak, muntatzaileak eta mihizatzaileak	54.925	% 7,4	31.980	% 4,4
Makineria mugikorraren gidariak eta operadoreak	31.374	% 4,2	17.746	% 2,4
Kualifikazio gabeko langileak	93.788	% 12,6	115.499	% 15,9
GUZTIRA	745.751	% 100	727.051	% 100

Lau azpikategoria horietan metatu zen langile kualifikatuen kopuruaren jaitsiera handiena (ia % 80) bi urte horien artean. Bereziki handia izan zen eraikuntza-sektoreko jarduera-murrizketa.

Bestalde, % 16,2 jaitsi zen (-9.088 lagun) industriako langile kualifikatuen kopurua (erauzketa-industriak, metalurgia, makineria-eraikuntza eta antzekoak).

Zuzendarien eta erdi-mailako arduradunen portzentajeek % 31,8 eta % 9,8 egin zuten gora, hurrenez hurren, 2008tik 2016ra bitartean; hala eta guztiz ere, bi kategoria horien pisu erlatiboa, plantillen guztizkoarekiko, ez zen langile kualifikatuen eta kualifikaziorik gabeko langileen pisu erlatiboaren adinakoa.

SEKTOREAK ETA ENPRESAREN TAMAINA. 2008 ETA 2016 URTEAK

Establezimendua sektorearen eta tamainaren arabera aztertzeko, bi multzo handitan bildu dira kategoria profesionalak: enplegu kualifikatua eta kualifikaziorik gabeko enplegua.

Enplegu kualifikatua sartzen dira zuzendariak, teknikariak eta profesional laguntzaileak, erdi-mailako arduradunak, enplegatu administrariak eta bulegariak, eta langile kualifikatuak.

Kualifikaziorik gabeko enpleguan, berriz, kualifikaziorik gabeko langileak eta oinarrizko lanbideak sartzen dira.

2008tik 2016ra bitartean, zerbitzuen sektorean bakarrik egin zuten gora enplegu kualifikatuek (% 5,2) eta, batez ere, kualifikaziorik gabeek (% 68,2); gainerako sektoreetan, aldiz, behera egin zuten bi enplegu-segmentu horiek, bereziki eraikuntzan (% 44ko jaitsiera enplegu kualifikatua eta kualifikaziorik gabean).

29. KOADROA

ENPLEGUA, KATEGORIA PROFESIONALAREN (ENPLEGU KUALIFIKATUA VS KUALIFIKAZIORIK GABEA) ETA SEKTOREAREN ARABERA, 2008-2016 EPEAN

	Kualifikatua, guztira				Kualifikaziorik GABEA, guztira			
	2008	2016	Aldea	Igoera/Jaitsiera (%)	2008	2016	Aldea	Igoera/Jaitsiera (%)
Sektorea								
Industria	179.096	148.804	-30.292	-% 16,9	38.356	31.343	-7.013	-% 18,3
Eraikuntza	69.623	38.462	-31.161	-% 44,8	8.050	4.461	-3.589	-% 44,6
Zerbitzuak	403.244	424.285	21.041	% 5,2	47.382	79.696	32.314	% 68,2
GUZTIRA	651.963	611.551	-40.412	-% 6,2	93.788	115.500	21.712	% 23,1

Baina industriak eta eraikuntzak jasandako enplegu-jaitsierak gorabehera, ia aldaketarik gabe eutsi diote bi sektore horiek enpleguaren banaketari —enplegu kualifikatuari eta kualifikaziorik gabekoari dagokienez— 2008tik 2016ra, kasu bietan txikiagoa zelarik 2016an guztizko enplegu-oinarria, zortzi urte horietan enplegu garbiak izandako beherakada zela medio.

Zerbitzuen sektorean izan zuen hazkunderik handiena kualifikaziorik gabeko enpleguak

30. KOADROA**ENPLEGUAREN PISU ERLATIBOA, KATEGORIA PROFESIONALAREN (ENPLEGU KUALIFIKATUA VS KUALIFIKAZIORIK GABEA) ETA SEKTOREAREN ARABERA, 2008-2016 EPEAN**

	2008				2016			
	Kualifikatua, guztira		Kualifikaziorik GABEA, guztira		Kualifikatua, guztira		Kualifikaziorik GABEA, guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
GUZTIRA	651.963	% 87,4	93.788	% 12,6	611.551	% 84,1	115.500	% 15,9
Industria	179.096	% 82,4	38.356	% 17,6	148.804	% 82,6	31.343	% 17,4
Eraikuntza	69.623	% 89,6	8.050	% 10,4	38.462	% 89,6	4.461	% 10,4
Zerbitzuak	403.244	% 89,5	47.382	% 10,5	424.285	% 84,2	79.696	% 15,8

2008tik 2016ra, zerbitzuen sektorean izan zuen igoerarik handiena kualifikaziorik gabeko enpleguak, hots, enplegua hazi zen sektore bakarrean. Kualifikazio baxukoak izan ziren sektore horretan sortutako enpleguen % 60.

31. KOADROA**ENPLEGUA, GUZTIRA, ETA KATEGORIA PROFESIONAL BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, SEKTOREKA (2008)**

	2008. urtea						
	Enplegua	Zuzendaritza	Teknikariak	Arduradunak	Adminis.	Langile kualif.	Kualif. GABEKO langil.
GUZTIRA	745.751	% 7,8	% 16,5	% 4,8	% 11,3	% 46,9	% 12,6
Industria	217.452	% 5,8	% 11,4	% 6,0	% 8,2	% 51,0	% 17,6
Eraikuntza	77.672	% 9,1	% 6,4	% 5,1	% 10,3	% 58,6	% 10,4
Zerbitzuak	450.627	% 8,6	% 20,8	% 4,2	% 13,0	% 42,8	% 10,5

32. KOADROA**ENPLEGUA, GUZTIRA, ETA KATEGORIA PROFESIONAL BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, SEKTOREKA (2016)**

	2016. urtea						
	Enplegua	Zuzendaritza	Teknikariak	Arduradunak	Adminis.	Langile kualif.	Kualif. GABEKO langil.
GUZTIRA	727.051	% 10,6	% 16,2	% 5,4	% 12,5	% 39,4	% 15,9
Industria	180.148	% 7,7	% 11,8	% 6,3	% 8,6	% 48,1	% 17,4
Eraikuntza	42.923	% 14,6	% 10,7	% 6,0	% 11,2	% 47,1	% 10,4
Zerbitzuak	503.980	% 11,3	% 18,3	% 5,1	% 14,0	% 35,6	% 15,8

2008tik 2016ra kategoria profesionalak izandako bilakaera aztertuta, sektore guztietan igo zen zuzendarien pisu erlatiboa, eta jaitsi langile kualifikatuena; erdi-mailako arduradunen eta administrazioko langileen pisu erlatiboak, berriz, igoera askoz apalagoa izan zuen.

Gora egin zuen eraikuntzan teknikarien eta profesional laguntzaileen pisuak, eta behera zerbitzuetan; bestalde, hazi egin zen kualifikaziorik gabeko langileen garrantzia zerbitzuetan, eta bere horretan iraun zuen gainerako sektoreetan.

33. KOADROA

ENPLEGUA, KATEGORIA PROFESIONALAREN (ENPLEGU KUALIFIKATUA VS KUALIFIKAZIORIK GABEA) ETA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA, 2008-2016 EPEAN

	Kualifikatua, guztira				Kualifikaziorik GABEA, guztira			
	2008	2016	Aldea	Igoera/Jaitsiera (%)	2008	2016	Aldea	Igoera/Jaitsiera (%)
0-5 enplegu	193.826	162.438	-31.388	-% 16,2	4.872	14.516	9.644	% 197,9
6-49 enplegu	261.756	251.218	-10.538	-% 4,0	30.612	38.237	7.625	% 24,9
50-250 enplegu	115.489	130.216	14.727	% 12,8	29.606	29.101	-505	-% 1,7
250 enplegu baino gehiago	80.892	67.679	-13.213	-% 16,3	28.698	33.646	4.948	% 17,2
GUZTIRA	651.963	611.551	-40.412	-% 6,2	93.788	115.500	21.712	% 23,1

Enpresaren tamainaren araberako azterketari dagokionez, enpresa ertainetan bakarrik (50-250 enplegu) egin zuen gora enplegu kualifikatuaren pisuak 2008tik 2016ra; gainerako segmentuetan, kualifikaziorik gabeko enpleguaren garrantzi erlatiboa igo zen, batez ere enpresa txikienetan eta 250 enplegutik gorakoetan.

Tamaina handieneko enpresetan egin zuen gora kualifikaziorik gabeko enpleguaren pisu erlatiboak

34. KOADROA

ENPLEGUAREN PISU ERLATIBOA, KATEGORIA PROFESIONALAREN (ENPLEGU KUALIFIKATUA VS KUALIFIKAZIORIK GABEA) ETA TAMAINAREN ARABERA, 2008-2016 EPEAN

	2008				2016			
	Kualifikatua, guztira		Kualifikaziorik GABEA, guztira		Kualifikatua, guztira		Kualifikaziorik GABEA, guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Tamaina								
0-5 enplegu	193.826	% 97,5	4.872	% 2,5	162.438	% 91,8	14.516	% 8,2
6-49 enplegu	261.756	% 89,5	30.612	% 10,5	251.218	% 86,8	38.237	% 13,2
50-250 enplegu	115.489	% 79,6	29.606	% 20,4	130.216	% 81,7	29.101	% 18,3
250 enplegu baino gehiago	80.892	% 73,8	28.698	% 26,2	67.679	% 66,8	33.646	% 33,2

Enpresen profilaren arabera, tamaina handieneko enpresetan du pisu erlatiborik handiena kualifikaziorik gabeko enpleguak, eta proportzionalki hazten da enpresaren tamaina handitu ahala. Hala gertatu zen, bai 2008an, bai 2016an.


Azkenik, hazkunde handia izan zuen kualifikaziorik gabeko langileen kopuruak 6 enplegu baino gutxiagoko enpresetan, bai eta —maila txikiagoan— 250 enplegutik gorako enpresetan ere.

ENPLEGUA, LAN-KATEGORIAREN ETA SEXUAREN ARABERA

2008tik 2016ra, % 10,2 hazi zen emakumeen enplegu-kopurua txostenak aztertutako enpresetan, hau da, 2016an 29.402 emakume gehiago ari ziren lanean 2008an baino.

20. GRAFIKOA


EMAKUMEEN ENPLEGUAREN BILAKAERA (2008-2016)



Hazkunderik handiena kualifikaziorik gabeko emakume langileen kategorian izan zen —16.000 emakume landun gehiago 2008tik 2016ra, hots, % 44,2ko igoera—, zuzendariena atzetik zetorkiola (2008an baino 9.285 zuzendari emakumezko gehiago, % 68ko igoera).

21. GRAFIKOA


EMAKUMEEN ENPLEGUAREN BILAKAERA 2008-2016 EPEAN: IGOERA GARBIA ETA ALDAKETA-TASAK



Kualifikaziorik gabeko emakumeen multzoan izan zuen hazkunderik handiena emakumeen enpleguak

Handia izan zen, halaber, erdi-mailako arduradun-postuetako emakumeen enpleguaren igoera (% 39,6koa, 2008tik 2016ra, hau da: 3.335 enplegu gehiago kategoria horretan).

22. GRAFIKOA
GIZONEN ENPLEGUAREN BILAKAERA (2008-2016)



Gizonezkoen dagokienez, 2008tik 2016ra, % 10,5 jaitsi zen aztertutako enpresetan lan egiten zuten langile-kopurua.


Langile kualifikatuen kategorian galdu zen gizonezkoen enplegu gehiena

Guztira, 2008an baino 48.103 enplegu gutxiago zeuden 2016an, hau da, 458.240tik 410.138ra jaitsi zen gizonezkoen enplegua tarte horretan. Beraz, emakumeen enpleguaren bilakaera baino nabarmen okerragoa izan zuen gizonenak.

Kategoria hauetan, hurrenez hurren, izan zuen jaitsierarik handiena gizonezkoen enpleguak 2008-2016 epean: langile kualifikatuak (-% 24,9) eta teknikariak (-% 12,9). Bi kategoria horien artean 68.000 enplegu pasatxo galdu ziren zortzi urte horietan.

23. GRAFIKOA

GIZONEN ENPLEGUAREN BILAKAERA 2008-2016 EPEAN: IGOERA GARBIA ETA ALDAKETA-TASAK



Aldiz, nabarmen egin zuen gora gizonen enpleguak, 2008tik 2016ra, kategoria hauetan: zuzendaritza (% 20,7, hots, 9.345 gizona zuzendari gehiago), administrariak (% 28,4, hots, 5.703 langile gehiago) eta kualifikaziorik gabeko langileak (% 8,9, alegia, 4.992 langile gehiago epe horretan).

2.3. ENPRESA ESPORTATZAILEETAN ENPLEGUAK IZANDAKO BILAKAERA, ETA GLOBALIZAZIOAREN ERAGINAREN BALORAZIOA

2008tik 2016ra, % 6,2 igo zen enplegua fakturazioaren % 30 baino gehiago esportaziotik eskuratzen duten enpresetan

Aztertutako alorrean, bere horretan iraun zuen enpresa esportatzaileen pisuak¹ 2008-2016 epean, hau da, guztizkoaren % 2,5aren inguruan. Alabaina, gora egin zuen enpleguak kanporantz irekiagoak diren enpresa esportatzaile horietan, eta enplegu-sorrerak dinamika positiboa izan zuen 2008tik 2016ra.

Beren fakturazioaren % 30 baino gehiago esportazioetatik eskuratzen duten enpresek enplegu garbia sortu zuten 2008-2016 epean: % 6,2 egin zuen gora enpleguak enpresa esportatzaileetan; gainerakoetan, aldiz, % 4 behera.

35. KOADROA

ENPRESA-ESTABLEZIMENDUAK, FAKTURAZIOAREKIKO ESPORTATZEN DUTEN %-AREN ARABERA. (2008-2016)

	2008. urtea		2016. urtea	
	Kopurua	Guztizkoarekiko %	Kopurua	Guztizkoarekiko %
Establezimenduak, guztira	111.241	% 100,0	105.241	% 100,0
Esportazioak >= % 30	2.773	% 2,5	2.639	% 2,5
Esportazioak < % 30	108.468	% 97,5	102.602	% 97,5

36. KOADROA

ENPRESA-ESTABLEZIMENDUAK, FAKTURAZIOAREKIKO ESPORTATZEN DUTEN %-AREN ARABERA (2008-2016)

Tamaina	Establezimendu-kopurua		Aldaketa-tasa (%) 2008-2016
	2008	2016	
Establezimenduak, guztira	111.241	105.541	-5,4
Esportazioak >= % 30	2.773	2.639	-4,8
Esportazioak < % 30	108.468	102.602	-5,4

37. KOADROA

ENPRESA-ESTABLEZIMENDUETAKO ENPLEGUA, FAKTURAZIOAREKIKO ESPORTATZEN DUTEN %-AREN ARABERA (2008-2016)

Tamaina	Enplegu-kopurua		Aldaketa-tasa (%) 2008-2016
	2008	2016	
Establezimenduak, guztira	745.751	727.051	-2,5
Esportazioak >= % 30	106.206	112.777	6,2
Esportazioak < % 30	639.545	614.274	-4,0

38. KOADROA**ENPRESA-ESTABLEZIMENDUAK, GLOBALIZAZIOAZ EGITEN DUTEN
BALORAZIOAREN ARABERA (2008-2016)**

	2008. urtea		2016. urtea	
	Kopurua	Gutzizkoarekiko %	Kopurua	Gutzizkoarekiko %
Establezimenduak, guztira	111.241	% 100,0	105.241	% 100,0
Positiboa	9.069	% 8,2	11.714	11,1
Ez-positiboa	102.172	% 91,8	93.527	88,9

Galdera hau ere egin zien LME-EFk enpresei: zer deritzoten globalizazio-prozesu orokorrak eurengan duen eraginari.

Gutxiengoa dira oraindik ere globalizazio-prozesuaz balorazio positiboa egiten duten enpresak, baina gora egin du guttizkoarekiko portzentajeak. 2008tik 2016ra, % 8,2tik (2008) % 11,1era (2016) igo zen globalizazioaz balorazio positiboa egiten zuen establezimenduen portzentajea, hau da, 2,9 puntu.

Bestalde, 2008tik 2016ra bikoiztu egin zuten enplegua globalizazioaren aldeko enpresek; gainerakoetan, aldiz, % 17,4 egin zuen behera.

39. KOADROA**ENPLEGUA EAE-N, AZTERTUTAKO EREMUETAN, GLOBALIZAZIOAREN
BALORAZIOAREN ARABERA 2008-2016**

Tamaina	Enplegu-kopurua		Aldaketa-tasa 2008-2016 (%)
	2008	2016	
Establezimenduak, guztira	745.751	727.051	-2,5
Positiboa	79.627	177.010	122,3
Ez-positiboa	666.124	550.041	-17,4

3. NEGOZIOAREN MARTXA ERAGOZTEN DUTEN FAKTOREAK

Zenbait arazok negozioaren martxan duten eraginaz ere galdetu zien LME-EFk enpresei. Arazo hauetaz, zehazki:

- 1.- Lehia areagotzea.
- 2.- Eskariaren murriztea/Bezerorik eza.
- 3.- Eskulan espezializatuaren eskasia.
- 4.- Enpresaren ekoizpen-ahalmenaren urritasuna.
- 5.- Finantziazio- edo altxortegi-arazoak / Finantziazioa lortzeko zailtasunak.

Galdetu zitzaien, zehazki, ea egungo egoeran faktore horiek negoziarioaren martxa oztopatzen duten. Enpresek baiezko erantzuna (Bai) edo ezezkoa (Ez) eman behar zuten.

Laginketako enpresa guztiei egin zitzaien galdera hori 2016an; aurreko urteetan, berriz, 5 enplegutik gora zituztenei bakarrik.

Azkeneko laginketan jasotako erantzunak aztertuko ditugu, eta, ondoren, aurreko urteetako erantzunekin alderatuko. Konparazioa homogenea izan dadin, ez ditugu sartuko 5 langile baino gutxiagoko enpresen erantzunak.

3.1 2016. URTEA

1. Lehia areagotzea.

Lehia areagotzeak nolako eragina duen galdetuta, enpresen % 66,5ek erantzun zuten faktore hori dela negozioaren martxa gehien mugatzen duena.

2.- Eskariaren murriztea/Bezerorik eza

Halaber, enpresen % 66,3k adierazi zuten eskariaren murrizteak edo bezerorik ezak ere mugatu egiten zuela negozioaren martxa.

Beraz, merkatuarekin lotura duten bi faktore horiek ziren enpresen martxari gehien eragiten ziotenak.

3.- Eskulan espezializatuaren eskasia

Eskulanaren eskasiak negozioaren martxa mugatzen zuen galdetuta, enpresen % 16,8k baietz erantzun zuten. Dena dela, faktore mugatzaile hori aurrekoetatik nahiko urrun geratu zen, laugarren postuan.

Industrirentzat garrantzi handixeagoa zuen faktore horrek (% 22,3), batez ere ekoizpenaren % 30 baino gehiago esportatzen zuten bigarren sektorekoentzat, zeinetatik % 42,4k adierazi baitzuen eskulan espezializaturik eza faktore mugatzailea zela negozioaren martxa onerako.

Eskualdekako azterketak erakutsi digunez, berriz, Debagoieneko enpresetatik % 30,2rentzat arazoa zen eskulanaren eskasia. Beharbada, eskualde horretan industriako sektore jakin batzuek duten pisu handia izan daiteke arazoaren eragilea.


4.- Enpresaren ekoizpen-ahalmenaren urritasuna

Ekoizpen-ahalmenaren urritasunak enpresaren hazkundera mugatzen zuen galdetuta, enpresen % 9,7k bakarrik erantzun zuen baietz. Beste era batera esanda, enpresen % 90,3k ez zuketean arazorik izango eskaria areagotuz gero hura asetzeko.

5.- Finantziazio- edo altxortegi-arazoak / Finantziazioa lortzeko zailtasunak

Azkenik, interes-tasak baxuak izan arren, enpresen % 21,3k zioten gai horrek zuzenean eragiten ziola negozioaren martxari.

24. GRAFIKOA NEGOZIOAREN MARTXA MUGATZEN DUTEN FAKTOREAK (2016)



3.2. 5 ENPLEGUTIK GORAKO ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA. 2008-2012-2016 URTEAK

Aurreko atalean adierazi dugunez, laginketako enpresa guztiei egin zitzaien negozioaren martxa eragozten duten faktoreei buruzko galdera 2016ko galde-sortan.

Aurreko bi laginketetan (2008 eta 2012), ordea, 5 langiletik gorako enpresei bakarrik egin zitzaien galdera hori. Horregatik, 2016ko laginketan ez dira sartu 5 langile edo gutxiago zituzten enpresetako emaitzak, konparazio homogeneoa egitearren urte horretako eta aurreko emaitzen artean.

Hori dela eta, alde txiki bat dago 2016ko emaitzen eta aurreko atalean azaldutakoen artean.

Datuen azterketak dioskunez, eskariaren murrizteari eta lehia areagotzeari lotutako faktoreak ziren, 2008an eta 2012an, euskal enpresei gehien eragiten zietenak eta haien negozio-martxa mugatzen zutenak.

Enpresen arabera, merkatuari lotutako faktoreak ziren beren negozioen martxari gehien eragiten zietenak, bai 2008an, bai 2012an, bai 2016an


Beraz, 2016an ekonomia suspertzen hasia zen arren, ez dirudi enpresek hobekuntza nabarmenik sumatzen zutenik beren negozioen bilakaeran.

Arazo horren atzetik zetozen finantziazioari lotutakoak, baina 2016an 2012an baino ia 5 puntu txikiagoa zen enpresentzat zuen garrantzia, eta 2008ko mailara itzuli zen.

Bost enplegu baino gehiago zituzten enpresen % 27,1en iritziz, 2016an eskulan espezializatuaren eskasiak mugatu egiten zuen negozioaren martxa

Bestalde, enpresek zioten bazutela nahikoa ekoizpen-ahalmen eskariaren handitzei erantzuteko.

25. GRAFIKOA
NEGOZIOAREN MARTXA ERAGOZTEN DUEN FAKTORE BAKOITZA AIPATU ZUTEN ENPRESEN
PORTZENTAJEA (2008-2012-2016)



Ondorio gisa esan liteke enpresen iritziz merkatuarekin lotura duten arazoak (lehia, eskaria murriztea edo bezero-eskasia) direla, beti, negozioaren martxan eragin handiena dutenak.

Bigarren arazo nagusia, berriz, eskulan kualifikatuaren urritasuna da; dena den, 2012an enpresen % 8,9k bakarrik aipatzen zuten gai hori.

Atzetik datoz finantziazio-arazoak (2016an, enpresen % 25,9k zituzten; 2012an, oster, % 30,2k).

Halaber, enpresen % 92k baino gehiagok uste dute badutela nahikoa ahalmen eskari handiagoei erantzuteko; beraz, ez dute ikusten ekoizpen-ahalmena beren negozioaren martxa eragozten duen faktore gisa.

3.3. ESKULAN ESPEZIALIZATUAREN ESKASIAREN ARAZOA 5 ENPLEGU BAINO GEHIAGOKO ENPRESETAN

Eskulanaren eskasiak negozioaren martxa eragozten duen galdetuta (ikus 3.1 atala), enpresen % 16,8k baietz erantzun zuten.

Aztertutako alorretako 5 enplegutik gorako enpresen erantzunen arabera, ia 10 puntu igotzen da portzentajea (% 27,1). Dena dela, sektore guztiak xehe aztertuta, alde nabarmenak ikusten dira.

40. KOADROA

ESKULAN ESPEZIALIZATUAREN URRITASUNAREN ERAGINA, JARDUERA-EREMUKA, 2016AN

Industria, energia eta antzekoak	% 13,3
Industria metalikoa	% 44,8
Manufaktura-industria	% 23,0
Eraikuntza	% 34,0
Merkataritza, ostalaritza	% 27,4
Konponketak	% 56,7
Garraioa eta komunikazioak	% 13,0
Finantza-jarduerak eta enpresentzako zerbitzuak	% 20,4
Hezkuntza	% 34,2
Osasun-zerbitzuak	% 33,7
Gizarte-zerbitzuak	% 19,7
Beste zerbitzu batzuk	% 21,4
5 langiletik gorako enpresak, guztira	% 27,1

Konponketen sektorekoa zen arazo hori aipatzen zuen enpresa-portzentajerik handiena (% 56,7k baietz erantzun zioten galderari); bigarrena, berriz, industria metalikokoa (% 44,8). Bi sektore horietan, batezbestekoa (% 27,1) baino nabarmen handiagoa zen arazo hori faktore mugatzailetzat zeukaten enpresen portzentajea.

Batezbestekoarekin gainetik zeuden, halaber, eraikuntza (% 34), hezkuntza (% 34,2) eta osasun-zerbitzuak (% 33,7), baina aurrez aipatutako jarduera-eremuetako portzentajeetara iritsi gabe.

Batezbestekotik urrunen zeuden sektoreak, berriz, hauek ziren: industria, energia eta antzekoak (% 13,3), eta garraioa eta komunikazioak (% 13).

Portzentaje horiek aztertzeke, kontuan hartu behar da enpresa horietako kategoria bakoitzaren enplegu-bolumena. Beheko koadroan ikusten da zenbat langile dituzten, kategoria bakoitzeko, 5 enplegutik gorako enpresek, eta nola dauden banatuta jarduerarekiko.

LME-EFren datuen arabera, 2016an 108.400 lagunek egiten zuten lan industria metalikoaren sektoreko 5 langiletik gorako enpresetan; gizarte-zerbitzuetan, berriz, 26.412k; hezkuntzan, 32.464k, eta osasun-zerbitzuetan 16.228k.

41. KOADROA

KATEGORIA PROFESIONAL BAKOITZEKO LANGILE-KOPURUA, JARDUERA-EREMUAREN ETA ENPLEGU-PORTZENTAJEAREN ARABERA, EREMU BAKOITZEKO GUZTIZKOAREKIKO. 5 ENPLEGUTIK GORAKO ENPRESAK. 2016. URTEA

	2016. urtea						
	Enplegua	Zuzendaritza	Teknikariak	Arduradunak	Adminis.	Langile kualif.	Kualif. GABEKO lang.
GUZTIRA	550.096	% 6,4	% 17,6	% 6,4	% 12,1	% 39,2	% 18,4
Industria, energia eta antzekoak	16.428	% 6,6	% 9,9	% 9,3	% 9,9	% 46,9	% 17,3
Industria metalikoa	108.400	% 5,9	% 14,0	% 6,1	% 8,1	% 50,1	% 15,8
Manufaktura-industria	39.217	% 6,8	% 9,1	% 6,2	% 8,5	% 45,7	% 23,7
Eraikuntza	28.792	% 7,7	% 14,1	% 7,3	% 11,5	% 48,0	% 11,4
Merkataritza, ostalaritza	108.400	% 5,0	% 6,2	% 8,8	% 9,8	% 49,6	% 20,5
Konponketak	3.113	% 6,1	% 9,4	% 6,0	% 14,4	% 51,8	% 12,3
Garraioa eta komunikazioak	35.970	% 3,4	% 6,0	% 8,8	% 29,1	% 35,9	% 16,8
Finantza-jarduerak eta enpresentzako zerbitzuak	109.007	% 9,1	% 24,9	% 5,1	% 16,6	% 17,6	% 26,6
Hezkuntza	32.464	% 6,5	% 63,5	% 2,3	% 10,2	% 14,5	% 3,1
Osasun-zerbitzuak	16.228	% 5,3	% 39,5	% 2,9	% 12,6	% 33,7	% 5,9
Gizarte-zerbitzuak	26.412	% 4,7	% 17,8	% 5,0	% 4,8	% 50,7	% 17,0
Beste zerbitzu batzuk	25.665	% 6,5	% 16,9	% 5,6	% 12,2	% 42,3	% 16,6

Bestalde, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuak dira kualifikaziorik gabeko langile gutxien duten jarduerarekiko (sektore horietako enplegu osoaren % 3 eta % 5,9, hurrenez hurren); askotan, gainera, berariazko trebakuntza behar izaten da sektore horietan lan egiteko.

Industria metalikoei dagokienez, sektore horretan eskatzen den kualifikazio-maila ez da bigarren sektoreko edo eraikuntzako gainerako eremuetakoa baino handiagoa, baina industriaren gainerako alorretan baino langile gehiago dituzte eta, honenbestez, baliteke zailtasun handiagoak izatea lanpostu jakin batzuetarako langileak aurkitzeko, jasotako datuek diotenez.

Lurraldeka aztertuta, hiru eskualde oso industrialetako 5 langile baino gehiagoko enpresek diote negozioaren martxa eragozten egiten duela eskulanaren eskasiak.

Hauek dira aipatutako eskualdeak: Gipuzkoako Debagoiena eta Debabarrena, non enpresen % 36,9k eta % 32,9k baietz erantzun zioten galderari, eta Bizkaiko Durangaldea (% 32).

Aiara eskualdeko (%30,9) eta Donostialdeko (% 31) enpresek ere batezbestekotik gorako portzentajeak zituzten.

Portzentajerik txikienak, berriz, hauek zituzten: Bilboko Eskuinaldeak (% 21,1), Tolosa-Goierrik (% 22,9) eta Bilbok (% 23,3).

Plantillaren adinari erreparatuz gero, ez zen alde handirik nabaritzen, eta jarduera-eremu guztiek zeukaten 55 urtetik gorako langileen antzeko portzentajea.

Laburbilduz, badirudi gehienbat hauei eragiten diela eskulanaren eskasiak: zenbait sektore industrialetako, hezkuntzako eta osasun-zerbitzuetako 5 enplegutik gorako enpresei. Merkatuarekin lotura duten faktoreei ere garrantzi handia ematen zieten enpresa horiek.

4. LANGILEAK KONTRATATZEKO PREMIEN KUDEAKETA


4.1. ARAZOAK ETA KONTRATAZIO-BIDEAK 2016AN

Enpresa-portzentaje txiki batek dioenez (% 6,8), arazoren bat izan zuten 2016ko kontratazio-prozesuetan

Azken urtean langileak kontratatzeke arazorik izan zuten galdetuta, baietz erantzuten zuten % 6,8k, eta ezetz % 80,1ek; % 13,1ek, berriz, adierazi zuten ez zuela horrelako batere prozesurik egin 2016an.

26. GRAFIKOA

2016AN KONTRATAZIOAK EGITEKO IZANDAKO ARAZOEN ARABERAKO ENPRESA-PORTZENTAJEAK



42. KOADROA

2016AN KONTRATAZIOAK EGITEKO IZANDAKO ARAZOEN ARABERAKO ENPRESA-PORTZENTAJEAK. GUZTIZKOA ETA SEKTOREKOA

	Enpresak	Langileak kontratatzeke arazorik izan al duzu azken urtean?		
		Bai	Ez	Ez du inor kontratatu
GUZTIRA	105.241	% 6,8	% 80,1	% 13,1
Sektorea				
Industria	10.217	% 8,6	% 79,9	% 11,5
Eraikuntza	9.904	% 7,0	% 83,0	% 10,1
Zerbitzuak	85.120	% 6,6	% 79,8	% 13,7

Honenbestez, enpresa gehienek ziotenez (% 80,1, hamarretik zortzi), ez zuten arazorik izan 2016ko kontratazio-prozesuetan.

Jarduera-eremuka, industrian (% 8,6) eta eraikuntzan (% 7,0) handixeagoa zen kontratazio-arazoen eragina, eta txikixeagoa zerbitzuen sektorean (% 6,6).

Baina arazoaren eragina jarduera-eremuka aztertuz gero, alde handiagoak ikusten dira.

43. KOADROA

KONTRATAZIO-ARAZOAK IZAN ZITUZTEN ENPRESEN PORTZENTAJEA, JARDUERA-EREMUAREN ARABERA (%)

Industria, energia eta antzekoak	% 5,6
Industria metalikoa	% 11,9
Manufaktura-industria	% 5,1
Eraikuntza	% 7,0
Merkataritza, ostalaritza	% 7,1
Konponketak	% 5,5
Garraioa eta komunikazioak	% 4,9
Finantza-jarduerak eta enpresentzako zerbitzuak	% 3,7
Hezkuntza	% 17,3
Osasun-zerbitzuak	% 8,5
Gizarte-zerbitzuak	% 18,3
Beste zerbitzu batzuk	% 6,7
GUZTIRA	% 6,8

Azken urtean jendea kontratatzeke arazorik izan zuten galdetuta, baietz erantzuten gizarte-zerbitzuetako enpresen % 18,3k, hezkuntzako % 17,3k, industria metalikoko % 11,9k eta osasun-sektoreko % 8,5ek.

Langileak kontratatzeke arazoak zituzten enpresen portzentaje handienak sektore hauetan zeuden: gizarte-zerbitzuak (% 18,3), hezkuntza (% 17,3) eta industria metalikoak (% 11,9)

Arazo gutxien izan zutela zioten enpresak, berriz, finantza-jardueren eta enpresentzako zerbitzuen sektoreetakoak ziren: % 3,7 bakarrik erantzun zioten baietz galderari.

Enpresa-kopuruari zegozkion portzentaje horiek, ez langileenari; izan ere, ez dugu informazio zehatzik langileak aurkitzeko arazoak zeuden lanpostuen ezaugarriari buruz.

Nolanahi dela ere, komeni da datu horiek dagokien testuinguruan kokatzea, kontuan harturik —besteak beste— jarduera-eremu bakoitzaren enplegu-bolumena.

LME-EFren datuen arabera, 2016an 116.656 langile zeuden industria metalikoaren sektorean; gizarte-zerbitzuetan, berriz, 27.421; hezkuntzan, 39.655; eta osasun-zerbitzuetan, 27.513.

44. KOADROA

KATEGORIA PROFESIONAL BAKOITZEKO LANGILE-KOPURUA, JARDUERA-EREMUAREN ETA ENPLEGU-PORTZENTAJEAREN ARABERA, EREMU BAKOITZEKO GUTZIZKOAREKIKO. (2016)

	2016. urtea						
	Enplegua	Zuzendaritza	Teknikariak	Arduradunak	Adminis.	Lang. kualif.	Kualif. GABEKO lang.
GUZTIRA	727.051	% 10,6	% 16,2	% 5,4	% 12,5	% 39,4	% 15,9
Industria, energia eta antzekoak	17.595	% 7,5	% 10,3	% 8,9	% 10,8	% 46,0	% 16,4
Industria metalikoa	116.656	% 6,9	% 13,4	% 6,1	% 8,2	% 49,9	% 15,5
Manufaktura-industria	45.897	% 10,0	% 8,3	% 5,9	% 8,9	% 44,2	% 22,6
Eraikuntza	42.923	% 14,6	% 10,7	% 6,0	% 11,2	% 47,1	% 10,4
Merkataritza, ostalaritza	170.575	% 9,8	% 5,4	% 6,3	% 8,5	% 53,3	% 16,7
Konponketak	7.584	% 17,7	% 4,3	% 4,0	% 12,4	% 53,9	% 7,8
Garraioa eta komunikazioak	43.094	% 7,1	% 6,2	% 8,3	% 27,5	% 34,4	% 16,5
Finantza-jarduerak eta enpresentzako zerbitzuak	145.637	% 15,5	% 23,7	% 4,4	% 20,4	% 15,3	% 20,7
Hezkuntza	39.656	% 11,2	% 58,7	% 2,0	% 9,8	% 15,3	% 3,0
Osasun-zerbitzuak	27.513	% 10,2	% 41,3	% 1,9	% 12,9	% 28,7	% 5,1
Gizarte-zerbitzuak	27.421	% 5,6	% 18,6	% 4,9	% 4,9	% 48,9	% 17,1
Beste zerbitzu batzuk	42.500	% 10,9	% 12,8	% 4,5	% 11,0	% 46,8	% 14,0

Bestalde, lehendik ere adierazi dugunez, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuak ziren kualifikaziorik gabeko langile gutxien zuten jarduera-eremuak.

Industria metalikoei dagokienez, sektore horretan eskatzen den kualifikazio-maila ez da bigarren sektoreko edo eraikuntzako gainerako eremuetakoa baino handiagoa, baina industriaren gainerako alorretan baino langile gehiago dituzte, eta, honenbestez, baliteke zailtasun handiagoak izatea lanpostu jakin batzuetarako langileak aurkitzeko.

Enpresaren tamainari erreparatuz gero, zenbat eta handiagoa izan tamaina, orduan eta handiagoa horrelako arazoan eta kontratazio-zailtasunen eragina.

45. KOADROA

KONTRATAZIO-ARAZOAK DITUZTEN ENPRESAK, TAMAINAREN ETA SEKTOREAREN ARABERA (%)


	Enpresak	Langileak kontratatzeko arazorik izan al du azken urtean?		
	Guztira	Bai	Ez	Ez du inor kontratatu
GUZTIRA	105.241	6,8	80,1	13,1
Tamaina				
0-5 enplegu	82.697	4,9	80,0	15,1
6-49 enplegu	20.707	13,6	80,3	6,1
50-250 enplegu	1.651	16,7	81,5	1,8
250 enplegu baino gehiago	186	18,3	79,6	2,1

Zenbat eta handiagoa enpresaren tamaina, orduan eta zailtasun handiagoak langileak kontratatzeko.

Bost enplegu baino gutxiago dituzten enpresetan, adibidez, % 4,9ri bakarrik eragiten diete kontratazio-arazo horiek; plantillaren tamaina handitu ahala, berriz, nabarmen egiten du gora arazo horien eraginak, eta 250 enplegutik gorako enpresen % 18,3ra iristen da.

27. GRAFIKOA

KONTRATAZIO-ARAZOEI AURRE EGITEKO ERABILITAKO KONPONBIDEAK (%)



Zailtasun horiek zirela eta, hauek izan ziren kontratazio-arazoak konpontzeko enpresek aplikatutako neurririk ohikoenak: bilaketaren eremu geografikoak areagotzea, bertako langileez baliatzea eta enpresa barruko trebakuntza-prozesuak erabiltzea.

Nabarmentzekoa da horrelako arazoak izan dituen hiru enpresetatik batek ezin izan dituela konpondu

Aipatu dugunez, mugatua da arazo horien eragina (enpresen %

6,8ri bakarrik eragiten diete), baina nabarmentzekoa da enpresa-kopuru handi batek ezin dituela konpondu arazoak.

2016an kontratazio-arazoak izan zituzten enpresen % 36k ezin izan ditu konpondu; hori dela eta, ezin izan du egin kontratazioa aurreikusi bezala.

Dezente handiagoa da portzentaje hori tamaina txikiagoko enpresetan. Handiagoetan, aldiz, badirudi hobeto gainditu dituztela zailtasun horiek.

46. KOADROA

KONTRATAZIO-ARAZOEI APLIKATUTAKO KONPONBIDEAK, SEKTOREAREN ETA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

	Establezimendu langileak trebatzea	Soldata handiagoak eskaintzea	Beste establezimendu batzuetan trebatutako langileak kontratatzea	Bilaketa beste eremu geografiko batzuetara hedatzea	Beste batzuk	Ezin izan ditu konpondu
GUZTIRA	20,3	3,6	10,6	21,3	7,4	36,8
0-5 enplegu	16,7	2,2	9,1	22,3	5,2	44,5
6-49 enplegu	24,5	5,0	12,4	19,6	10,7	27,8
50-250 enplegu	28,3	9,7	13,7	23,8	4,7	19,8
250 enplegu baino gehiago	23,4	8,8	11,7	32,8	8,8	14,6

Jarduera-eremuka, sektore hauek nabarmendu ziren, batezbestekoaren gainetik, kontratazio-arazoak behar bezala konpontzerik lortu ez zutenen artean: konponketak (% 73,7), gizarte-zerbitzuak (% 44,5), eraikuntza (% 42,2) eta hezkuntza (% 42).

47. KOADROA

KONTRATAZIO-ARAZOAK KONPONTZEA LORTU EZ DUTEN ENPRESEN PORTZENTAJEA, JARDUERA-EREMUAREN ARABERA (%)

Industria, energia eta antzekoak	% 28,6
Industria metalikoa	% 23,9
Manufaktura-industria	% 39,9
Eraikuntza	% 42,2
Merkataritza, ostalaritza	% 41,1
Konponketak	% 73,7
Garraioa eta komunikazioak	% 16,5
Finantza-jarduerak eta enpresentzako zerbitzuak	% 30,0
Hezkuntza	% 42,0
Osasun-zerbitzuak	% 22,1
Gizarte-zerbitzuak	% 44,5
Beste zerbitzu batzuk	% 36,4
GUZTIRA	% 36,8

Dena dela, lehenago ere azaldu dugunez, dagokien testuinguruan kokatu behar dira portzentaje horiek arazoaren benetako irismena zehazteko, sektore horietako bakoitzaren enplegu-bolumena kontuan hartuta.

4.2. KONTRATAZIO-BIDEAK 2016AN


Lan Merkatuaren Errolda-Eskari Faseak aztertzen dituen gaien artean dago langileak hautatzeko enpresek erabiltzen dituzten bideen zerrenda.

2016ko edizioan, bide horietatik hiru nagusiak adierazteko eskatu zitzairen **5 enplegu edo gehiago** zituzten enpresei, sei kategoria-profesional hauetako bakoitzerako:

- Zuzendariak eta gerenteak.
- Teknikariak, profesional zientifikoak eta intelektualak eta/edo profesional laguntzaileak.
- Erdi-mailako arduradunak.
- Enplegatu administrariak eta/edo bulegariak.
- Langile kualifikatuak.
- Kualifikaziorik gabeko langileak edo oinarritzko lanbideetan dihardutenak.

Enpresa bakoitzak aukera bat baino gehiago erantzun zezakeenez (hiru, gehienera), handiagoa izan da jasotako bideen kopurua erantzun duten enpresena baino.

28. GRAFIKOA LANGILEAK KONTRATATZEKO ENPRESEK ERABILITAKO BIDEEN ZERRENDA²



² Zerrenda hori osatzeko, ez dira kontuan hartu "beste batzuk" eta "bat ere ez" ataletako erantzunak, eta formularioko kontratazio-bideren bat aipatu duten erantzunekin egin da zerrenda.

Horregatik, enpresen ordez **adierazitako hautaketa-bideak**³ erabiliko ditu erreferentzia-unitate gisa ondorengo azterketa honek.

Biderik erabiliena harreman pertsonal edo profesionalena izan zen, eta hala adierazi zuten enpresen % 22,4k.

Atzetik datoz, portzentaje altuekin, enplegu-atariak (%13,7), Lanbide/SEPE (% 12,6) eta enpresa barruko sustapenak (% 10,4).

Enpresek adierazitakoen ia % 60 osatzen dute lau bide nagusi horiek. Kontrako muturrean, berriz, hauek daude: ABLEak eta tokiko enplegu-bulegoak (jasotako bideen % 5,2 bakoitzak).

Jasotako gainerako berariazko bideak, zerrendaren erdialdean daudenak, hauek ditugu: giza baliabideen alorreko hautaketa-enpresak (% 9), ikastetxeak (% 7,9), prentsa eta antzekoak (% 6,9), eta, azkenik, sektoreko enpresak (% 6,6).

Kategoria-enplegu bakoitzerako erabilitako kontratazio-bideen azterketa xehea eginda, hau nabarmentzen da guztien gainetik, erdi-mailako arduradunen kasuan izan ezik: harreman pertsonalen edo profesionalen bidea.

Erdi-mailako arduradunen kontratazioan bakarrik da lehen bidea barne-sustapena (% 19,8), harreman pertsonalak eta/edo profesionalak atzetik dituela (% 19,4).

³ Zerrenda hori osatzeko, ez dira kontuan hartu "beste batzuk" eta "bat ere ez" ataletako erantzunak, eta formularioko kontratazio-bideren bat aipatu duten erantzunekin egin da zerrenda.

5. PLANTILLA IDEALA

Plantilla idealari buruzko berariazko galdera bat dago LME-EFaren galde-sortan. Bost langile baino gehiago dituzten establezimenduei bakarrik egin zaie galdera hori. Hona zer dioen: “Plantilla ideal bat, hipotetikoa, sortzeko aukera bazenu, zer aldatuko zenuke zure oraingo plantillan?”.

Aztertutako eremuetan, 22.548 ziren bost enplegu edo gehiagoko establezimenduak 2016an, eta 550.113 lagunek egiten zuten lan haietan.

Bost enplegu baino gehiagoko enpresetatik, % 13,6k bakarrik (3.069 enpresa) aldatuko luke 2016an zeukan plantillaren bolumena (% 10, hots, 2.265 enpresa) edo osaera (% 3,6, hau da, 804 enpresa).

29. GRAFIKOA


PLANTILLA IDEAL BAT, HIPOTETIKOA, SORTZEKO AUKERA BAZENU, ZER ALDATUKO ZENUKE ZURE ORAINGO PLANTILLAN?



2016an beren plantillen enplegu-bolumena edo kategoriakako osaera “hipotetikoki” aldatzeko prest zeuden enpresek 6.581 enplegu garbi sortuko zituzketen, hots, % 12,7 handituko zituzketen beren plantillak (51.389 enplegu).

Lan-kategoriaka, langile kualifikatuek eskuratuko zituzketen enplegu garbi eta berri haietako gehienak (4.539 enplegu garbi gehiago); ondoren, teknikariek (868 enplegu garbi) eta erdi-mailako arduradunek (459 enplegu garbi gehiago).

Zuzendarien kategorian bakarrik aurreikusten zen enplegu garbiaren jaitsiera txiki bat (-20 enplegu).

30. GRAFIKOA**ENPLEGU-SORRERAREN SALDO GARBIA, PLANTILLA IDEAL BATEAN, ENPLEGU-BOLUMENA ALDATU NAHI DUTEN 5 ENPLEGUTIK GORAKO ENPRESEN ARTEAN (2016. URTEA)**

Bada, 6 eta 49 enplegu bitarteko enpresek izango zuketen enplegua sortzeko potentzial handiena (6.581 enplegu garbien % 51,6); 250 enplegutik gorako enpresek, aldiz, apenas sortuko zuketen aurreikusitako saldoaren % 9,1.

Bestalde, hirugarren sektorea izango zatekeen dinamikoena enplegua sortzen: aurreikusitako 6.581 enplegu hipotetiko horietatik, lautik hiru zerbitzuen sektorean sortuko ziratekeen (% 76,4). Industriak, berriz, aurreikusitako saldo garbiaren % 15,2 bakarrik sortuko zukeen.

48. KOADROA**PLANTILLA IDEAL BATERAKO ENPLEGU-SORRERAREN SALDO GARBIARI EGINDAKO EKARPENA, KATEGORIA PROFESIONAL BAKOITZEKO, JARDUERA-SEKTOREAREN ETA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (%)**

	GUZTIRA	Zuzendaritza	Teknikariak	Arduradunak	Administrazioa	Langile kualifikatuak	Kualifikaziorik gabeko langileak
GUZTIRA	6.581	-20	868	459	213	4.539	521
6-49 enplegu	3.398	-10	759	292	87	1.899	372
50-250 enplegu	2.582	-10	90	155	103	2.088	155
250 enplegu baino gehiago	601	0	19	12	24	552	-6
GUZTIRA	6.581	-20	868	459	213	4.539	521
Industria	998	-11	116	60	-29	754	108
Eraikuntza	556	-8	39	30	-35	387	144
Zerbitzuak	5.027	-1	714	369	278	3.399	269

49. KOADROA

PLANTILLA IDEAL BATERAKO ENPLEGU-SORRERAREN SALDO GARBIARI EGINDAKO EKARPENAREN PORTZENTAJEA, LAN-KATEGORIA BAKOITZEKO, JARDUERA-SEKTOREAREN ETA ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA (%)

	GUZTIRA	Zuzendaritza	Teknikariak	Arduradunak	Administrazioa	Langile kualifikatuak	Kualifikaziorik GABEKO langileak
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
6-49 enplegu	51,6	50,5	87,4	63,6	40,6	41,8	71,3
50-250 enplegu	39,2	49,5	10,4	33,8	48,3	46,0	29,8
250 enplegu baino gehiago	9,1	0,0	2,2	2,6	11,1	12,2	-1,1
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100
Industria	15,2	53,6	13,3	13,2	-13,7	16,6	20,7
Eraikuntza	8,4	41,0	4,5	6,5	-16,5	8,5	27,7
Zerbitzuak	76,4	5,3	82,2	80,3	130,2	74,9	51,6

Guztira, plantilla ideala lortzeko enplegu-aldaketa horiek % 1,2ko hazkundera eragingo zuketean, non eta 2016an aztertutako eremuetako 5 enplegutik gorako enpresek zeuzkaten 550.113 enplegetan.

6. LABURPENA ETA ONDORIOAK

Lau urtean behin, Lan Merkatuaren Errolda-Eskari Fasea deritzon lan estatistikoa (aurrerantzean, LME-EF) egiten du Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak. Lan horren bitartez, enpresetatik zuzenean jasotzen da informazioa zenbait gairi buruz; enpleguaz, batez ere. 2016an egin zen azkeneko errolda.

LME-EFko datuak oinarri hartuta, haren atal batzuen gaineko azterketa egin dugu, betiere EAEko sektore pribatuko jardueraren mugaturik (sektore publikoa sartu gabe, alegia). Azterketatik kanpo geratu dira, halaber, enplegu kontrataturik gabeko autonomoak, nekazaritzako eta arrantzako enpresak, eta etxeko lanak egiten dituzten langileak.

Hona hemen ondorio nagusiak:

% 5,4 egin zuen behera EAEko establezimenduen kopuruak krisiaren lehen eraginak nabaritzen hasi ziren urtetik, 2008tik, 2016ra bitartean; establezimendu haietako enplegua, berriz, % 2,5 jaitsi zen.

2008ko enpleguaren % 44,7 galdu zuen eraikuntzak; industrian, berriz, % 17,2 jaitsi zen langile-kopurua. Zerbitzuen sektorean bakarrik egin zuen gora landunen kopuruak: % 11,8 igo zen enplegua aipatutako bi urte horien artean.

Handixeagoa izan zen enplegu-galera tamaina txikieneko enpresetan (-% 10,9, 0 eta 5 enplegu bitartekoetan) eta handienetan (-% 7,5, 250 enplegutik gorakoetan). Aldiz, % 9,8 egin zuen gora enpleguak 50 eta 250 enplegu bitarteko enpresetan. Beharbada, horregatik gertatu zen igoera hori, neurri batean bederen: gutxitu egin zelako, 2008-2016 epean, 250 langiletik gorako enpresen kopurua eta, horrenbestez, hurrengo mailara jaitsi zirelako, 50-250 enplegukora, alegia.

Bestalde, behera egin zuen langile gazteen portzentajeak enpresetako plantilletan (2008an, % 33,4; 2016an, % 24); gora, aldiz, adin handiagoko langileenak.

Handitu egin zen, halaber, enpresetan antzintasun luzeena zutenen pisu erlatiboa. Aztertutako sektore guztiak kontuan hartuta, 2008an bost urtetik gorako antzintasuna zuten langileen portzentajea % 59,9tik % 65,3ra igo zen 2016an.

Bi urte horien artean, % 10,2 hazi zen emakumeen enplegua, atzeraldia gorabehera; aitzitik, % 10,5 jaitsi zen gizonen enplegua 2008tik 2016ra. Honenbestez, emakumeena zen aztertutako eremuetako enpleguaren % 43,6 2016an, 2008an baino 5 puntu handiagoa.

Apenas izan zen aldaketarik, aztertutako eremuetan, enplegu finkoaren portzentajea guztizkoarekiko alderatuta (% 80,5, 2008an; % 80,7, 2016an)⁴. Bestalde, ekonomia eta enplegua suspertu ahala gora egin zuen aldi baterako enplegua zuten langileen portzentajeak (% 19,3 2016an), 2012an enplegu-mota horrek izandako doikuntzaren ondoren (% 15,5era jaitsi zen portzentajea urte hartan).

Gora egin zuen aldi baterako enpleguaren pisuak zerbitzuen sektorean (2008an, % 19,1; 2016an, % 20,8). Hain zuzen ere, sektore horretan bakarrik sortu zen enplegu garbia 2008-2016 epean. Aldiz, enplegu finkoak zertxobait gora egin zuen sektore industrialean eta, are nabarmenago, eraikuntzan, gainerako sektoreek izandako galeragatik, neurri batean behintzat.

Lanaldi partzialeko enpleguaren garrantzi erlatiboak ere gora egin zuen 2008tik 2016ra, % 19,8raino, aipatutako tertziarizazio-prozesuaren eraginez horrek ere. Zerbitzuen sektorean, enpleguaren % 26,1 zen lanaldi partzialeko lanaren portzentajea 2016an, 2008koa baino 8,2 puntu handiagoa eta industriakoa eta eraikuntza halako lau.

Epe horretan, gora egin zuen kualifikazio txikieneko enpleguak ere, zeinaren pisu erlatiboa enpleguaren % 12,6tik (2008) % 15,9ra (2016) igo baitzen aztertutako sektoreetan, batez ere zerbitzuetan, non % 68,2 hazi baitzen 2008tik 2016ra.

Kategoria profesionalen arabera aztertuta, eraikuntzan izan zuen jaitsierarik handiena enplegu kualifikatuak, atzetik hauek zituela: makineria finkoko instalazio industrialetako operadoreak, muntatzaileak eta makineria mugikorreko gidariak.

⁴ Kalkulu hori egiteko, ez dira kontuan hartu gizarte-ekonomiako langileak (kooperatiba eta lan-sozietateetakoak), ezta lana duten autonomoak ere.

Dena dela, enplegu kualifikatuak 2008-2016 epean jasandako enplegu-murrizketa hori gorabehera, zenbait dinamika espezifikok adierazten dutenez hazkundera izan zuen enplegu kualifikatuak kategoria batzuetan:

Zuzendarien enplegu-kopurua % 31,8 hazi zen; erdi-mailako arduradunena, berriz, % 9,8.

Enplegatu administrarien eta bulegarien kopuruak % 7,3 egin zuen gora.

Nabarmen igo zen langile kualifikatuen enplegua jatetxeetan eta zerbitzu profesionaletan (% 57,7).

Sexuen arabera, kualifikaziorik gabeko emakumeen multzoan izan zuen hazkunderik handiena emakumeen enpleguak; gizonezkoen enplegu-galera handiena (saldo negatiboa, guztira), berriz, langile kualifikatuen kategorian izan zen.

Negozioaren martxa oztopatzen duten faktoreei dagokienez, hauek aipatu zituzten enpresa gehienek garrantzitsuen gisa: merkatuarekin lotura dutenak; besteak beste, lehia handitzea eta eskaria jaistea. 2016an, hiru establezimendutik biri eragiten zieten faktore horiek.

Portzentaje txikiagoak eman zizkieten enpresek beste faktore batzuei; adibidez, finantziario-arazoei (% 21,3) eta eskulan espezializatuaren eskasiari (% 16,8). Bigarren arazo hori batez ere enpresa industrialek nabarmentzen zuten, bereziki atzerriko lan asko egiten dutenek.

Nolanahi dela ere, enpresen % 6,8k bakarrik adierazi zuten 2016an arazoak izan zituztela langileak kontratatzeke; aitzitik, % 80,1ek zioten ez zutela inongo arazorik izan. Azkenik, % 13,1ek adierazi zuten ez zutela inongo kontrataziorik egin azken urtean.

Zenbat eta handiagoa enpresaren tamaina, orduan eta handiagoa kontratatzeke zailtasunen eragina: 250 enplegutik gorako enpresen % 18,3k ziotenez, arazoak izan zituzten langileak kontratatzeke.

Kontratazio-arazoak izan zituzten enpresen % 36,8k ezin izan zituzten konpondu; hori dela eta, ezin izan zuten egin kontratazioa aurreikusi bezala.

Azkenik, langileak hautatzeko enpresek erabilitako bideei dagokienez, harreman pertsonalak ageri dira zerrendaren hasieran; ondoren, enplegu-atariak eta, hirugarrenik, Lanbide/SEPE.